



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko ekainaren 26a

71 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituenak. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (11. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (25. or.).
- Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (30. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen agindu dut. Proiektu hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

5. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua, 2003. eta 2004. urteetarako aurrekontu-kontsignazioa, kentzea.

Zioak: Lehen ere aurkeztutako zuzenketekin bat etortzeko. Haietan, 2002ko ekitaldirako kreditu gehigarri bat ematea bideratzearen eta etorkizuneko ekitaldietarako foru lege batez Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa dela-eta sakoneko konponbideak ematearen aldekoak ginelan esan genuen; halaber, beste kontu garrantzitsu batzuk ere badaude: bi administrazio publikoen arteko harremanen esparruari eta Nafarroako eskumenen banaketa, egungoaz bestelako agertoki politiko batean gertatzea.

2. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 1. idatz-zatiaren ordezkari ondoko testua jartzea proposatzen dugu:

5. artikulua. 2003 eta 2004 urteetarako aurrekontu-kontsignazioa.

1. 2003 eta 2004 urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzeko funtsaren kontsignazioa hau izanen da: foru ogasunak aurreko ekitaldian bildutakoaren % 12,5 eta 15, hurrenez hurren, eta transferentzia arruntetan, kapital transferentzietan eta bestelako laguntzetan banatuko da.

Zioak: Funtsaren zenbatekoa zerga zuzen eta zeharkakoen bitartez bildutakoaren % 15era progresiboki egokitzearen prozedurarekin bat etortzeko bideari jarraitzearen.

Funtsaren parte hartzearen xedea Foru Ogasunak zerga zuzen eta zeharkakoen bitartez bildutako guztiaren % 15ean zehazten da, kopuru hori arrazoizkoa delako udal beharrezko erantzuteko eta, bestalde, foru administrazioaren ahalmen ekonomikoari begira bideragarria delako. Kopuru hori, gainera, hurbil dago arlo honetako Europako estandarretatik, nahiz eta helburu hori progresiboki lortzea planteatzen den: 2001erako % 10, 2002rako % 12,5 eta 2003rako % 15.

3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
JAUNAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitzea proposatzen dugu. Honakoa esanen du:

2003rako, transferentzia arrunten banaketa funts berariazko bat prestatuko da, 4.000 biztanle baino gutxiagoko udalentsat; funtsak 5.128.597 euro izanen ditu.

Zioak: 4.000 biztanle baino gehiagoko udalentsako bestelako laguntzak izeneko kontzeptuaren barruan bi azpi-funtzen sorrera bere garaian jasan beharreko gaitz baten moduan aurkeztu zen, etorkizunean gainerako udalak ere hartuko zituen lehenbiziko pauso bat balitz bezala.

Gure ustez, berehala konpondu beharrekoa da biztanle maila horretako udalek jasan beharreko diskriminazio negatibo hori.

4. ZUZENKETA**BATASUNA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko 2. idatz-zatiko hirugarren eta lauugarren lerrokadek ondoko testua izatea proposatzen dugu:

“Funtsak Foru Ogasunaren bilketan ekitaldi guztietan, 2004. urtea barne, duen parte hartzean gertaturiko ehuneko hazkunde progresiboaren ondorioz kontsignazioan kapital transferentzietan gertaturiko igoerak urteko gehigarriak sortuko ditu, eta gehigarri horiek 2001-2003 urteetarako toki azpiegiturei buruzko hiru urteetarako planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeko irizpideen arabera eta toki azpiegiturei buruzko 2001-2003 urteetarako plan berezia ezarri zuen uztailaren 5eko 16/2001 Foru Legearen arabera banatuko dira.”

Zioak: Transferentzia arruntetarako ezarri diren hazkunde progresibotik heldu diren osagarrien xedea ezartzea; hiru urteetarako planen eta plan berezien bidez ezarritako aurreikuspenak gaitutuko dira, puntuazio altua erdietsi arren planen munta ekonomiko eskasaren ondorioz atzera botatuko eskari haietako batzuk onartzeko balio dezaten.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
JAUNAK AURKEZTUA

5. artikuluko 3. idatz-zatia ordeztzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. 2003. eta 2004. urteetan transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako aurreikusitako zenbatekoa kontzeptu horietarako 2002. urtean aurreikusitako zenbateko bera izanen da, salbu eta 2003. urterako sortzen den azpi-funts berriari dagokiona, Nafarroako Foru Komunitateko kontsumorako prezioen indizearen igoeraren portzentajea, urte bakoitzerako hartutakoa, eta gutxienez ere Nafarroako kontsumorako prezioen indizea gehi beste % 2.

Zioak: Nafarroko toki entitateek benetan partaide izan daitezten erkidegoko tributuetan parte hartzeko funtsaren izenburutik.

6. ZUZENKETA**BATASUNA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 3. idatz-zatia ordeztzeko zuzenketa.

5. artikuluko 3. idatz-zatia ordeztea proposatzen dugu. Hona testua:

“3. 2003 eta 2004. urteetarako zenbatekoa, transferentzia arruntei eta beste laguntza batzuei dagokiena, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko den funtsaren % 75 izanen da.

Zioak: Funtsaren zenbatekoa finkatzeko formulari buruzko argudioekin bat etorritik, gure ustez ehuneko formula da edozein motatako urteko gaurkotzea eskatzen ez duen bakarra, eta, horrenbestez, egokiena.

6. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**7. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI

JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
JAUNAK AURKEZTUA

6. artikulua ordeztzeko zuzenketa.

6. artikulua. Gainerako udaletarako hasierako asignazioa.

6. artikulua. Gainerako udaletarako hasierako asignazioa.

Udal bakoitzerako hasierako asignazioa hone-la kalkulatzeko, banatuko den dirutzari udal bakoitzerako banaketa-indize ponderatua aplikatuko zaio. Banaketa-indize ponderatua, berriz, gastu premien eta ahalmen fiskalaren indizeen arteko diferentzia kalkulatuaz lortzen da, honako urrats hauek eginez:

a) Gastu premien indizea gastu premiaren bost aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik.

Erabilitako aldagaiak honako hauek dira:

Udal bakoitzeko populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzaren hiri-lurraren azalera garbiak Nafarroa osoko hiri-lurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea. Hau da hiri-lurraren azalera garbia: planoaren araberako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatie batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

Udal bakoitzeko 65 urtetik gorakoaren populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorakoaren populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzeko entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuen kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

b) Ahalmen fiskalaren indizea lortzeko, udalen ahalmen fiskala eta ondare ahalmenaren adierazgarri diren lau aldagaien konbinazio lineala erabiliko da, urte eredu baterako aldagai bakoitzari dagokion dirubilketak dirubilketen kopuru osoari buruz duen pisuaren arabera ponderaturik. Erabiliko diren aldagaiak honako hauek dira:

Udal bakoitzeko Hiri-lur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez do-

tzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

Udal bakoitzeko Landa-lur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatu baturari buruz egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzeko herri-lurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan, kontzejuetan ez dauden herri-lurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

Udal bakoitzeko jarduera ekonomikoaren gaineko zergak Nafarroa osoan (Iruña alde batera utzirik) zerga horren ondorioz egiten den guztizko dirubilketari buruz egiten duen portzentajea, udal gainkargak kontuan hartu gabe, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea betez Nafarroako Gobernuak eginiko erregistroaren arabera.

c) Gastu premien indizeari ahalmen fiskalaren indizea (0,2642 faktoreaz ponderaturik) kenduz lortzen da udal bakoitzarentzako banaketa-indizea, honako formula honen arabera:

$$FTC = 0,9206 \times PPOB + 0,2118 \times PMA65 + 0,2964 \times PURB + 0,0226 \times PNDISEM + 0,0051 \times PENTSING - 0,1801 \times CTU - 0,0282 \times CTR -$$

$$0,0717 \times IAE - 0,0753 \times IVTM - 0,1012 \times VCC$$

Non hau ulertu behar den:

FTC: udal bakoitzaren banaketa-indizea .

PPOB: udal bakoitzaren populazioak Nafarroa osoko populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

PURB: Udal bakoitzaren hiri-lurraren azalera garbiak Nafarroa osoko hiri-lurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea. Hau da hiri-lurraren azalera netoa: planoaren araberako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatie batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

PMA65: udal bakoitzeko 65 urtetik gorakoaren populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorakoaren populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

PNDISEM: udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuak kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuak kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

PENTSING: udal bakoitzeko entitate banakatuak kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuak kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

CTU: udal bakoitzeko Hiri-lur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doituak baturari buruz egiten duen portzentajea. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

CTR: udal bakoitzeko Landa-lur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doituak baturari buruz egiten duen portzentajea.

IVTM: udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatuak baturari buruz egiten duen portzentajea.

VCC: Udal bakoitzeko herri-lurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan kontzejuetan ez dauden herri-lurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

IAE: udal bakoitzeko jarduera ekonomikoaren gaineko zergak Nafarroa osoan zerga horrek izandako guztizko dirubilketari buruz egiten duen portzentajea, udal gainkargak kontuan hartu gabe, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea betez Nafarroako Gobernuak eginiko erregistroaren arabera.

d) Aurreko idatz-zatian lortutako banaketa indizeak udal bakoitzeko populazioaren tamainaren arabera kalkulatu den faktore zuzentzaile batez ponderatuko dira; hain zuzen ere, unitatea gehi populazioaren produktua bider 0,00002 izan den faktore hori. Udalen batean ateratzen den banaketa indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta banaketa indizeak gainerako udaletarako birkalkulatuko dira, halako moduan non horien guztien batuketa unitatea bezainbeste izan den. Banaketa indizea ponderatu horixe aplikatuko zaio banatu beharreko kopuruari, kopuru hori udal bakoitzari hasiera batean dagokiona

kalkulatzeko 5. artikuluan ezarritako moduan kalkulatu ondoren, hain zuzen ere.

8. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zati b) letra ordezteko proposatzen dugu. Hona testua:

Hezkuntza gastuetarako esleitua banatuko da udalerrri bakoitzean 16 urte edo gutxiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan Foru Komunitatekoaren aldean.

Behar diren zenbatekoak hezkuntza zerbitzua ematen den toki entitateari ordainduko zaizkio.”

Zioak: Garraiatutako ikasleak dauzkaten ikastetxeak dauzkaten herrien ahalegin ekonomikoa arintzen saiatzea, herri horiek ikastetxeen gastuei ia bakarrik egin behar izaten baitiete aurre.

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Banaketa-formula ezartzeko adierazgarriak.

Artikuluaren edukia ondokoa dioten beste batekin ordezteko:

Udal bakoitzarentzako hasierako esleipena lortzeko, banatzeko kopuruari udal bakoitzarentzat lorturiko banaketa ponderatuko indizea aplikatuko da. Banaketa indizea ponderatua kalkulatzeko, gastu beharren indizea ken ahalmen fiskala eragiketa egiten da, ondoren adierazitako faseei jarraituz,

a) Gastu premien indizea gastu premiaren bost aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik.

Erabilitako aldagaiak honako hauek dira:

Udal bakoitzeko populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzaren hiri-lurraren azalera garbiak Nafarroa osoko hiri-lurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

jea. Hau da hiri-lurraren azalera garbia: planoaren arabera zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatien batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

Udal bakoitzeko 65 urtetik gorakoaren populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorakoaren populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzeko entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuen kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

b) Ahalmen fiskalaren indizea lortzeko, udalen ahalmen fiskala eta ondare ahalmenaren adierazgarri diren lau aldagaien konbinazio lineala erabiliko da, urte eredu baterako aldagai bakoitzari dagokion dirubilketak dirubilketen kopuru osoari buruz duen pisuaren arabera ponderaturik. Erabiliko diren aldagaiak honako hauek dira:

Udal bakoitzeko Hiri-lur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

Udal bakoitzeko Landa-lur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuek Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatuen baturari buruz egiten duen portzentajea.

Udal bakoitzeko herri-lurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan, kontzejuetan ez dauden herri-lurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

Udal bakoitzeko jarduera ekonomikoaren gaineko zergak Nafarroa osoan (Iruña alde batera utzirik) zerga horren ondorioz egiten den guztizko dirubilketari buruz egiten duen portzentajea, udal gainkargak kontuan hartu gabe, Nafarroako toki

ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea betez Nafarroako Gobernuak eginiko erregistroaren arabera.

c) Gastu premien indizeari ahalmen fiskalaren indizea (0,2642 faktoreaz ponderaturik) kenduz lortzen da udal bakoitzarentzako banaketa-indizea, honako formula honen arabera:

$$FTC = 0,9206 \times PPOB + 0,2118 \times PMA65 + 0,2964 \times PURB + 0,0226 \times PNDISEM + 0,0051 \times PENTSING - 0,1801 \times CTU - 0,0282 \times CTR -$$

$$0,0717 \times IAE - 0,0753 \times IVTM - 0,1012 \times VCC$$

Non hau ulertu behar den:

FTC: udal bakoitzaren banaketa-indizea .

PPOB: udal bakoitzaren populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

PURB: Udal bakoitzaren hiri-lurraren azalera garbiak Nafarroa osoko hiri-lurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea. Hau da hiri-lurraren azalera netoa: planoaren arabera zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatien batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

PMA65: udal bakoitzeko 65 urtetik gorakoaren populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorakoaren populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

PNDISEM: udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

PENTSING: udal bakoitzeko entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuen kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

CTU: udal bakoitzeko Hiri-lur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

CTR: udal bakoitzeko Landa-lur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea.

IVTM: udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatuaren baturari buruz egiten duen portzentajea.

VCC: Udal bakoitzeko herri-lurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan kontzejuetan ez dauden herri-lurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

IAE: udal bakoitzeko jarduera ekonomikoaren gaineko zergak Nafarroa osoan zerga horrek izandako guztizko dirubilketari buruz egiten duen portzentajea, udal gainkargak kontuan hartu gabe, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea betez Nafarroako Gobernuak eginiko erregistroaren arabera.

d) Aurreko idatz-zatian lortutako banaketa indizeak udal bakoitzerako populazioaren tamainaren arabera kalkulatu den faktore zuzentzaile batez ponderatuko dira; hain zuzen ere, unitatea gehi populazioaren produktua bider 0,00002 izanen da faktore hori. Udalen batean ateratzen den banaketa indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta banaketa indizeak gainarako udaletarako birkalkulatuko dira, halako moduan non horien guztien batuketa unitatea bezainbeste izanen den. Banaketa indize ponderatu horixe aplikatuko zaio banatu beharreko kopuruari, kopuru hori udal bakoitzari hasiera batean dagokiona kalkulatzeko 5. artikuluan ezarritako moduan kalkulatu ondoren, hain zuzen ere.

Zioak: Gobernuaren aurreko proiektuan jaso eta IAEn ekarpenarekin hobetutako formula berreskuratzea; formula hori Gobernuak NUPi 1999an eskatutako lan luze baten emaitza da, 2000ko maiatzean bukatu zen lankidetzaz hitzarmen batez gauzatua, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren lankidetzaz eta haren onespenez ere baliaturik egin zena. Teknikariek horren denbora luzea lan egin ondoren sortutako formula izaki eta bi legegintza-ekimenetan kontuan hartu denez, ez dirudi inola ere komenigarria denik beste batekin ordeztzea, hain zuzen ere zein helburu dituen eta zein babes tekniko duen ez dakigun batekin. Lehenbizikoa, ospe tekniko handia duen NUP bezalako entitate baten lan handiaren ondorioa da, eta, gainera, diru publikoaz ordaindu zen.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
JAUNAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 6. artikuluko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

11. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Artikuluko 1. idatz-zatiaren ordezkioa ondokoa dion bat jartzea.

“1. Aurreko artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko banaketa formulak hasiera batez 2002. urteko ekitaldirako transferentzia arrunten funtsa esleitu die udalei.

Zioak: Aurreko zuzenketekin eta defendatzen dugun planteamenduetarekin bat etortzeko.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

12. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
JAUNAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zatia gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“3. 1etik 4.000 biztanlera bitarteko udalerrien-tzako dotazioa populazioaren arabera banatuko da, zuzeneko proportzioan.

Zioak: 4.000 biztanle baino gutxiagoko udalek pairatzen duten bazterkeria konpontzea.

Bere garaian lehenbiziko urrats moduan planteatu zen neurri bat denborarekin sendotzen ari da, orain gutxienez ere beste hiru urtetarako; horrela, berez nahikoa bazterturik dauden herri batzuk zigortu egiten dira.

**12. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

13. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
JAUNAK AURKEZTUA

12. artikulua kentzeko zuzenketa.

**13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

14. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatia kentzea proposatzen dugu. "...ekitaldi bakoi-tzean..." hitzak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko. Defendatzen dugun planteamenduan ez da 2002 baino geroagoko ekitaldirik sartzen.

15. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
JAUNAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. 5. idatz-zatia gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

"5. Nafarroako Gobernuak aurreko kopuruak ordaintzen atzeratuz gero, toki entitateak euskubidea izanen du dagozkion korrituak jasotzeko, ofizialki ezarritako diruaren prezioaren arabera."

Zioak: Administrazio publikoen artean berdintasun handiagoko harremanak ezartzea.

**14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

16. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Artikuluaren edukia ondokoa dioen beste batekin ordeztea proposatzen dugu:

2002. urterako hiru urteko planari dagozkion kapital transferentzietarako parte hartzearen zenbatekoa uztaillaren 3ko 7/2000 Foru Legean ezarritakoaren arabera banatuko da.

2002. urterako plan bereziari dagozkion kapital transferentzietarako parte hartzearen zenbatekoa uztaillaren 5eko 161/2001 Foru Legean ezarritakoaren arabera banatuko da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin eta 2002. urterako defendatzen dugun planteamenduarekin bat etortzeko.

**15. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

17. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketekin eta 2002. urterako kreditu-osagarriari buruz defendatzen dugun planteamenduarekin bat etortzeko, gero ekitaldietara jo gabe.

**16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

18. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua kentzeko zuzenketa.

Artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Aurreko zuzenketekin eta 2002. urterako kreditu-osagarriari buruz defendatzen dugun planteamenduarekin bat etortzeko, gero ekitaldietara jo gabe.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

19. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA

JAUNAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lehena. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte-hartzeko Fondo Orokorren transferentzia arrunten banaketak (Toki Administrazio kontseilariak ekainaren 25ean emandako 1999 urterako behin-behineko banaketa ezartzen duen 150/1999 Foru Aginduaren arabera eta 2000 urterako behin-behineko banaketa ezartzen duen Toki Administrazio kontseilariaren ekainaren 28ko 117/2000 Foru Aginduaren arabera eginak) ez dira behin betiko bihurtzen. Urte bakoitzeko egiazko datuetara egokituko dira.”

Zioak: Banaketa urte bakoitzeko errealitateari egokitzea.

20. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

JOSE M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA

JAUNAK AURKEZTUA

Irugarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa.

Hona testua:

“Hirugarrena. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura igorriko ditu 2002-2004 urte-erako Nafarroako toki itun bat egiteko oinarriak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren, Parlamentuko taldeen eta toki entitateen lankidetzarekin. Bertan toki entitateek garatzen eta baliatzen dituzten eskumenak eta horien kostua aztertuko da, eta bi administrazioen arteko hitzarmenerako formula bat ezarriko da. Toki entitateen eskumen esparrua eta haren finantzaketa berrikusiko da.”

Zioak: Toki entitateen eskari bati behin betiko erantzuna ematea.

21. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Xedapen gehigarri berria

Lege hau betetzeko ezarri behar diren kreditu-osagarriak 2001etik 2002ra luzatutako aurrekontuko kontusail honen kargura finantzatuko dira: 130000 11100 4000 911100, “Estatuarentzako ekarpena” izenekoa

Zioak: Finantzaketa ezartzea.

**TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

22. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa. Foru legeko titulua ondokoarekin ordeztzea proposatzen dugu:

“Foru Legea, 2001etik 2002ra luzatutako aurrekontuko ondoko kontusailarako kreditu-osagarri bat emateari buruzkoa: Transferentzia arruntetarako funts orokorra, Iruñeko Hiriburutza Agiria, Nafarroako udalenzako finantza-konpentsazioa, Plan berezia eta NUKFentzako laguntza.”

Zioak: Legegintzaldi honetan zehar egiaztatu ahal izan da ez dagoela Biltzarrean gehiengo baten adostasuna bideratzearen aldeko eszenatoki politikorik, hain zuzen ere zorroztasun eta sakontasunez ekiteko toki entitateen ogasunen egoera kaxkarrari konponbidea emanen dion foru lege bat egiteari. 2000. urtetik, aukera izan dugu bost ekimen ezberdin tramitatzeko, horietako bi UPNren gobernuak aurkeztutako lege proiektuak, eta ikusi ahal izan dugu edukietan eta botoetan ez-nahikoa den NDE eta UPNren arteko itunaren porrota, toki entitateek Nafarroako tribuetan parte hartzeko funtsaren banaketari dagokionez.

IUN/NEBren iritziz, legegintzaldi bukaera honetan ez dira ematen Biltzarrean indar politiko-gehiengoak, oro har, onetsiko lituzkeen sako-eko konponbideak eskainiko dituen foru lege bati ekiteko behar diren baldintza egokiak. Horrenbestez, ez zaigu egokia iruditzen datorren gobernu konprometitu eta neurri ez-nahikoak eskaintzen

dituen proiektu bat onartzea. Egokia iruditzen zaigu honelako ezaugarriak dituen lege bat beste eszenatoki politiko batean gertatzea, non Nafarroako, foru eta toki administrazioaren, arteko bestelako erlazio batzuk bideratzeko sakoneko konponbideak emanen dituen foru lege bat aurrera ateratzeko behar den gehiengoaren adostasuna bilatuko den; lege horrekin, eskumenen banaketa, herritarrek udalei eskatzen dizkieten erantzunak ematea eta tributuen bidez lorturiko funts ekonomikoaren banaketa aztertuko dira, toki entitateen beharrei aurre egiteko aski ez den dirulaguntzen bitartezko egoera honekin behingoz bukatzeko.

Hala eta guztiz ere, gure ustez beharrezkoa da, 2002ko aurrekontu-eszenatokirako kreditu-osagarri bat emanez, finantzen askitasunaren hobetzeari bide ematea, hain zuzen ere jada onartutako konpromiso ekonomikoak bete ahal izateko, ez baitira hurrengo ekitaldi baterako utzi behar.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

23. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Zioen azalpena ondoko testuarekin ordeztea proposatzen dugu:

Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikulua ezartzen du aurrekontuen kargura hurrengo ekitaldira arte geroratu ez daitekeen gasturen bat egin behar eta behar adina dirurik ez dagoenean, eta gainera foru lege honetako xedapenen arabera kreditua handitzerik ez dagoenean, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat igorriko diola Nafarroako Parlamentuari kreditu-gehirri bat eman dezan. Foru lege proiektu horretan proiektatu den gastu handiago hori finantzatzeko behar diren baliabideak zehaztu beharko dira.

Lege-aurreikuspen hori betez eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 19. artikuluan aitorturiko legegintza-ekimenaz baliatuz, Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan 2002ko ekitaldirako parte hartzeko funtserako dotaziorako kreditu-osagarri bat, eta bera banatzeko formula ezartzen dira.

Zioak: Foru legeko tituluari aurkeztutako zuzenketan zehaztutako bera.

Foru Lege proiektua, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2002ko ekainaren 10eko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Foru legearen xedea.

Artikuluaren edukia ondokoa dioen beste batekin ordeztzea proposatzen dugu:

“Foru lege honek xede du kreditu osagarri bat ematea, aurtan aurrekontu-euskarria emateko unibertsitate hezkuntza publikoa hobetzeko zenbait neurriren aplikazioari eta diruz lagundutako ikastetxe pribatu itunduen egoerari.”

Zioak: Legearen xedea zioen azalpenenari aurkeztutako zuzenketaren arabera egokitzeko; izan ere, bertan azaltzen dugu lege honen inguruan eta Nafarroako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza hobetzeko beharraren gainean IUN/NEBK defendatzen duen planteamendua, betiere hezkuntza sistema orokorrean harturik eta Nafarroako hezkuntza sistemaren eta hezkuntza pribatuarekiko itunen sistemaren sakoneko azterketa egitearen ondorioz.

2. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. titulua kentzeko zuzenketa

Aldaketa egiteko zuzenketa.

II. titulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko ituna, Nafarroako Gobernuak eta sindikatu batzuek sinatutakoa, aurrekoaren jarraipen hutsa da. Ez du inongo aldaketa kualitatiborik eskaintzen Nafarroako hezkuntza sektorea hobetzeko.

Akordioan, lan arloko zenbait neurri planteatu ziren, baina baita ere ingelesaren sartzeko goiztiarraren gaia. Honezkerok zenbait eragilek salatu duten bezala, Nafarroako Gobernuak ingelesa euskararen aurkako arma gisa erabili nahi du. Nafarroako Gobernuaren lege proiektu honek ateak irekitzen dizkio hizkuntza eredu berrikuspenari, eta, beraz, oso garrantzitsua da.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikuluko 2. idatz-zatian lerrokada bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“Idatz-zati honek aipatzen duen data urtero gaurkotuko da eta foru lege honek indarra duen bitartean, urtebetez.”

Zioak: Ez dakigu zergatik UPNk eta CDNk kendu duten lerrokada hori 2001ean AFAPNAK, CCOOK, CSIFek, UGTk eta foru administrazioak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko 2001eko maiatzaren 25ean sinatu zuten itunetik.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikuluko 5. idatz-zatiaren ordeztzea, ondoko testua proposatzen da:

Ondokoa dioen lekuan: "Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari urtero borondatezko erretiroaren prima osagarriaren kopurua handitze-ko..."

Hauxe esan behar du: Nafarroako Gobernuak urtero erretiroaren prima handituko du..."

Zioak: Egokiagoa dirudi 2001ean AFAPNAk, CCOOk, CSIFek, UGTk eta foru administrazioak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko 2001eko maiatzaren 25ean sinatu zuten itunari begira.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikulua bukaeran beste idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

"Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Ministerioari eskatuko dio legerian behar diren aldaketak egiteko Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean kotizatzen duten irakasleek gainerako irakasleen baldintza berberetan hartu ahal izan dezaten erretiro aurreratua."

Zioak: Ez dakigu zergatik UPNk eta CDNk kendu duten lerrokada hori 2001ean AFAPNAk, CCOOk, CSIFek, UGTk eta foru administrazioak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko 2001eko maiatzaren 25ean sinatu zuten itunetik.

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluan idatz-zati bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

"Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorraren indarraldia luza dezan eskatuko dio Estatuko administrazioari.

Zioak: Ez dakigu zergatik UPNk eta CDNk kendu duten lerrokada hori 2001ean AFAPNAk, CCOOk, CSIFek, UGTk eta foru administrazioak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko 2001eko maiatzaren 25ean sinatu zuten itunetik.

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluan idatz-zati bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

"Foru lege honen indarraldiaren barrenean amaituz gero LOGSEren arabeko erretiro sistema, Nafarroako Gobernuak jarraituko du pizgarriak ematen 60 urtetik gorako irakasleek erretiro aurreratua har dezaten, zerbitzuan 30 urte, gutxienez, eman baldin badituzte.

Zioak: Ez dakigu zergatik UPNk eta CDNk kendu duten lerrokada hori 2001ean AFAPNAk, CCOOk, CSIFek, UGTk eta foru administrazioak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko 2001eko maiatzaren 25ean sinatu zuten itunetik.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

8. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua ordeztzeko zuzenketa.

"Espainia osoko lekualdatze lehiaketarik..." dioen tokian esan behar du "Estatu osoko lekualdatze lehiaketarik...".

Zioak: Testua egokitzea.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

9. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1 eta 2. idatz-zatiak aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

"1. Aditu independentez osaturiko talde batek oinarri zientifiko eta pedagogikoetatik abiatutako proposamen bat prestatuko du Haur eta Lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan ingelesaren

edo Europako beste hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko.

2. Proposamen horiek ikastetxeek eta irakas-kuntzaren sektoreek eztabaidatu eta aberastuko dituzte eta ondoren lege garapena emanen zaie Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako Eskola Kontseiluak hala erabakitzen badu.

Zioak: Begi bistakoa da gaur egungo munduan ingelesa komunikaziorako eta zientziaren trantsmisiorako hizkuntza nagusia bilakatu dela nazioartean. Bistakoa da halaber eskolak errealitate horri erantzun eta tratamendu egokiak eskaini behar dizkiola. Baina irakas-hizkuntza gisa ingelesa ezartzeko Gobernuak duen proiektuak akats asko ditu:

Ez du oinarri zientifiko pedagogikorik. Ez dago behar adina esperientzia eredu gisa hartzeko, ezta plangintzarako irizpiderik eta prestaturik dauden irakasle nahikorik ere, ezta prestakuntzarako proiektu sendorik ere.

Ez ditu aintzat hartzen Nafarroan hezkuntzak dituen errealitate ezberdinak. Ez dira aintzat hartzen ikastetxeetako hizkuntza eredu eta hizkuntza errealitate desberdinak, eta asmoa da ingelesa ezartzeko eredu ziurtasunik gabea inposatzea, ikastetxeetan dauden hizkuntza planak eta hizkuntzei eman nahi zaien tratamendua alde batera utzirik.

Hezkuntza sistema osoan eragina duen proiektu bat ezin da gauzatu hezkuntza komunitateari, oro har, iritziak eman, hausnartu eta erabakitzeko eskubidea ukatuta. Indarra duten hizkuntza ereduak "de facto" aldatzen dituen proiektu horrek Nafarroako Parlamentuaren onespina jaso behar luke hezkuntza komunitatean eztabaidatu eta Nafarroako Eskola Kontseiluak aldeko iritzia eman ondotik.

Proiektua atzerriko hizkuntzak ikasteko gizar-teak zilegitasunez egiten duen eskaera manipulatzen eta euskarari kontrajartzeko pentsaturik dagoela ematen du, bide hauetatik:

a) A ereduaren bilakaera eta garapena moztea eremu ez-euskaldunean;

b) Eremu mistoan eta euskaldunean euskararen murgiltzeko ereduaren garapen arrakastatsua baldintzatu eta murriztea.

c) Euskarazko irakaskuntzan eta euskararenean matrikula kopuruak izan duen bilakaera positiboan eragin negatiboa izatea eta gizartearen eskaera aldatzen saiatzea.

10. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hizkuntza ereduak dagoeneko finkaturik daude Nafarroako Foru Komunitatean.

11. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua ondotik artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da artikulua berriaren testua:

4 bis artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen hezkuntza sare telematikoa hedatu eta generalizatzea.

Nafarroako Gobernuak, informatikako eta ikus-entzunezkoen ekipamenduari eta ikastetxe publikoek Interneteko konexioa edukitzeari dagokienez, hurrengo urtetan arlo horietan honelako jarduketak betetzeari ekiteko konpromisoa hartzen du:

1. Interneteko konexioa ikastetxeetarako eta irakasleentzat: Nafarroako Gobernuak, urtean, 421.000 euroko inbertsioa egingen du hori helburu, Nafarroako ikastetxe publikoek horrela Interneteko konexiorako banda-zabalera egokia emateko.

2. Irakasleentzako informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietako prestakuntza, bertaratzeko eta on-line: Nafarroako Gobernuak foru lege honen indarraldiaren lau urteetan 240.400 euro esleituko du, guztira, hainbat ikastaro antolatuz: ofimatika, telematika, irudi finkoa eta digitala, ingurune berrietarako material egokiak sortzea eta antzekoak.

3. Nafarroako ikastetxe publikoak sarean kableatzea. Nafarroako Gobernuak Nafarroako ikastetxe publikoak sarean kableatzeari ekingo dio. Horretarako, 1.800.000 euro esleituko ditu Nafarroako ikastetxe publikoak sarean kableatzeari ekiteko 2004. urtea amaitu baino lehen.

4. Nafarroako ikastetxe publikoek informatika eta ikus-entzunezkoen baliabideez hornitzea. Nafarroako Gobernuak 240.400 euroko zenbatekoa erabiliko du urtean Nafarroako ikastetxe publikoak informatika eta ikus-entzunezkoen baliabideez hornitzeko. Era berean, 5.000 biz-

tanletik beherako herrietako ikastetxe publikoetan 782.000 euro inbertituko ditu 2004. urtera bitarte.

5. Interneten oinarrituriko datuen kudeaketa zentralizaturako sistema bat ezartzea: Nafarroako Gobernuak Interneten oinarrituriko datuen kudeaketa zentralizaturako sistema bat ezartzen eta horretarako behar diren ekipamendu informatikoe-tan gutxienez 1.203.000 euroko inbertsioak eginen ditu, foru lege honen indarraldiaren urteetan.

Zioak: Ez dugu ulertzen zergatik 4. artikulua ingelesaren eta Europako Batasuneko hizkuntzen arloan itundutakoa azaltzen duen eta ez ordea teknologia berrien arloan itundutakoa.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

12. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI **BEGOÑA ERRAZTI ESNAL** ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

“...eskola adineko populazioa handitzeagatik...” kentzea proposatzen da.

Zioak: Ez zaigu egokia iruditzen eskola adineko populazioa handitzea aipatzea.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa

III. tituluaren hasieran beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

7 bis artikulua. Funtz publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eskolatzea

Nafarroako Gobernuak hitz ematen du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, gizarteaz baxterik daudenak eta emigrazioaren ingurukoak ikastetxeetan banatzearen alde eginen duela; horretarako, funtz publikoekin finantzaturiko ikastetxe guztiei eskatuko die talde horietarako tokien % 10 erreserba ditzan. Horretarako, gizarte gutxiengoak, etorkinak eta hezkuntza premia bereziak dituztenei laguntzeko programa bat prestatuko du. Programa horretan adierazitako betebeharrak betetzen ez dituzten ikastetxeen kasuan,

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak salatu egingen du ikastetxe horrekin dun ituna.”

Zioak: Ez gatoz bat UPNren eta CDNren estrategiarekin, alegia, irakaskuntza itunduarentzako moduluak gehitu eta bestelako hobekuntza batzuk, soldatenak eta ordutegiarenak, ematearekin, ikastetxe horiek ez badute laguntzarik ematen egungo hezkuntza sistemaren arazo nagusia konpontzeko. Tokien gutxieneko erreserba % 10ekoa izatea proposatzen da, horixe baita sindikatuek itunduriko portzentajea.

14. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko zuzenketa.

III. Titulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Irakaskuntza pribatuak faborezko tratua dauka Nafarroan. Administrazioaren aldetik esku-bide eta baliabide ugari lortzen du patronalak, baina ordea ikastetxe pribatuei eskatzen zaizkien konpromisoak oso urriak dira:

- Ikastetxe hauetan, salbuespenak salbuespen, ez dago parte hartzeko eta barne-demokraziarako aukerarik, eta erabaki guztiak patronalak hartzen ditu.

- Ikastetxe hauek ez dute hezkuntza zailtasunekin dauden kolektiboak integratzeko saiekarak egiten.

- Ikastolak izan ezik, ez dute Nafarroako bi hizkuntza ofizialak sustatzeko inolako konpromisorik hartzen.

- Irakasle eta langileek ikastetxe hauetan dituzten lan-baldintzak nahiko kaxkarrak dira hainbat kasutan.

Esan dezakegu nolabaiteko txeke zuria eskaintzen diola Hezkuntza Departamentuak irakaskuntza pribatuko patronalari, azkeneko akordioan berritutako txeke zuria, hain zuzen ere; Batasunan beti egongo gara irakasleen eta langileen lan-baldintzak hobetzearen alde, baina inola ez patronalari txeke zuria ematearen alde.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

8. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gaude ados aurrekontuko aldaketa horiek urteroko aurrekontuen eztabaidan ez erabakitzearekin eta gobernuaren ahalmena izatearekin.

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

8. artikulua. Ikastetxe itunduak eta diruz lagunduetarako laguntza neurriak.

Artikuluaren edukia ondokoa dioen beste batekin ordeztea:

“8. artikulua. Nafarroako irakaskuntza pribatuarekin itunak egin eta diruz laguntzeko baldintzen errebisioa.

1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren tramiteak egin ditzan supergaitasunarengatik edo azpi-gaitasunarengatik hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eta familia egoera nahiz egoera sozial edo kultural okerrean dauden ikasleen banaketa sustatzeko eta kolektibo horientzat postuen ehuneko 10 gorde dezan funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan.

2. Foru lege hau onetsi eta lau hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroan derrigorrezko irakaskuntzetan eta derrigorrezkoak ez direnetan ari diren ikasleen hezkuntza premiei buruzko diagnosi bat aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, bai eta hurrengo bost urteetan eskola-eskariei erantzuteko behar diren eskola postuei buruzko plangintza bat ere.

3. Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntza pribatuak, itundutakoak nahiz diruz lagundutakoak, irakaskuntza publikoaren subsidiarioa eta osagarria izanen da maila eta hizkuntza eredu

guztietan. Ikastetxeak ituntzeko eta diruz laguntzeko baldintzak bost urtez behin berrikusiko dira, baina horretaz aparte herritarren hezkuntza beharrik nabarmen aldatu direlako egoki jotzen denean ere berrikusi egin ahalko dira.

4. Halaber, diagnosi horrekin batera, hala nahi duten ikastetxe itunduak sare publikoan sartzeko proposamen arrazoitua ere aurkeztuko du, eskualdeka nahiz herrikoa, bai eta eskolatzeko beharrei erantzuteko eskualde eta herri bakoitzean itundu edo diruz lagundu beharreko postu guztien kopurua ere.

5. Funts publikoekin mantendutako ikastetxe pribatuarekin eskolatzeko doakotasuna bermatuko du derrigorrezko irakaskuntzetan; ezin izanen da aparteko inongo kopururik kobratu eskolaz kanpoko gastuengatik, gastu osagarriengatik, dohaintzengatik edo kontribuzioengatik ere.

6. Funts publikoekin mantendutako ikastetxeek bermaturik edukiko dute irakasleen eta irakasle ez diren langileen lan baldintzen homologazioa, lan-sariei, lanaldiei, erretiratzeko baldintzei, irakaslea/ikaslea ratioari eta adituen laguntzari dagokienez, pixkanaka ikastetxe publikoen pare izan daitezen alderdi guztietan.

Zioak: III. titulua IUN/NEBk lege proiektu hau dela-eta defendatzen duen planteamendu orokorrari egokitzea, hain zuzen ere legearen zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketan azaltzen dugun horixe. Itunen berrikuspenari ekiteko agindu argi bat sartu nahi dugu legean, sekula ez baita halakorik egin Nafarroan irizpide objektiboekin, gardentasuna emateko zergadunek jarritako funts publikoen xedearekin. Hartara, derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasuna bermatu nahi da modu efektiboan, kontua ez baita poltsiko jakin batzuei irakaskuntza pribatua merkeago jartzea.

17. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa

8. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokada ordezteko zuzenketa.

“...irakaskuntza pribatua” dioen tokian “irakaskuntza itundua” esan behar du.

Zioak: Terminologia egokitzea legearen xedearekin.

18. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

8 artikuluan hirugarren lerroaldea erantsi da.

Ikastetxe itundu horiei zenbait laguntza publiko emateko honako baldintza jarri ahalko zaie: Nafarroan etorkinak gizarteratzeko planean jasotako proposamenak betetzea.

Zioak: Ikasle etorkinak edo arazoak dauzkatekin ikastetxe publikoetan pila daitezen saihestea, orain arte hala gertatu baita.

19. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
 DE NAVARRA**
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa

8. artikuluko 1. idatz-zatiko 4. lerrokada aldatzea proposatzen dugu.

Ondokoa dioen lekuan: "... aurretik eta espresuki erakunde patronal guztiek eskaera hori bera egin badute, eta sindikatuak kontsulta eginik

Hona testua: "... aurretik eta espresuki 2000ko abenduaren 20ko Hitzarmena sinatu zuten erakunde guztiek eskaera hori bera egin badute

Zioak: Ez dugu ulertzen zergatik bereizten diren erakunde patronalak eta sindikatuak.

20. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
 DE NAVARRA**
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Lerrokada bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

Nafarroako Gobernuak Haur Hezkuntzako egungo 2. zikloko banakako itun partzialak dituzten ikastetxe guztiei exijituko die lehen ikasturteko plazen % 20ko erreserba izan dezaten gizarte gutxiengoetatik datozen ikasleentzat, etorkinentzat eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat. Erreserba hori betetzen ez duten ikastetxeen kasuan, Hezkuntza eta Kultura

Departamentuak salatu egingen du ikastetxe horrekin duen ituna."

Zioak: Nafarroako hezkuntza sistemak dituen arazoetan laguntzeko ikastetxe pribatuaren betebeharrak orokor hori nahitaezko bihurtzen da 3 urteko gela kasuan.

**9. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

21. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
 NAFARROAKO EZKER BATUA**
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

9. artikulua. Kreditu gehigarria.

"Batxilergoko irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntza" 41003-41610-4811-422300 kontu-saila kentzea.

Zioak: Artikulua IUN/NEBk lege proiektu hau dela-eta defendatzen duen planteamendu orokorrari egokitzea, hain zuzen ere legearen zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketan azaltzen dugun horixe. Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza den aldetik batxilergorako ezarritako dirulaguntzaren zenbatekoa birbanatu nahi da, Nafarroan egun gertatzen ari den eskolatze konplexuagoaren aurrean erantzuten ari diren ikastetxeei eta hezkuntza publikoko sarea betetzen ez duen hezkuntza prestazio konplexuago eta garestiagoari erantzuten ari direnei.

22. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
 NAFARROAKO EZKER BATUA**
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko zuzenketa

9. artikulua. Kreditu gehigarria.

"Eskolatu gabeko haurrentzako ikastetxeen dirulaguntza: Ilundain etxaldea, Etxabakoitz lantegia eta besteak" 41003-41610-4811-42202 kontu-saileko zenbatekoa aldatzea eta ondokoa jartzea: 491.834 euro.

Zioak: Artikulua IUN/NEBk lege proiektu hau dela-eta defendatzen duen planteamendu orokorrari egokitzea, hain zuzen ere legearen zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketan azaltzen dugun horixe. Derrigorrezkoaren ondoko hezkun-

tza den aldetik batxilergorako ezarritako dirulaguntzaren zenbatekoa birbanatu nahi da, Nafarroan egun gertatzen ari den eskolatze konplexuagorearen aurrean erantzuten ari diren ikastetxeei. Kontusaileko 395.189 euroko igoera horren barruan, 280.000 euro llandaingo Etxalde Eskolarekiko banakako ituna betetzeko izanen lirateke. Etxalde eskola hori hezkuntza sistemako hezkuntza premia zailenei erantzuten ari zaie –besteak beste Adingabeei buruzko legea Nafarroan garatzeak gizarte nahiz hezkuntza mailan eskatzen dituen neurriak betetzea eta eskolatzea–, eta 115.000 euro gainontzeko eskola tailer eta ikastetxe berezien artean banatuko lirateke.

23. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua bukaeran bi idatz-zati gehitzea. Hona testua:

“1. Funts publikoekin mantendutako ikastetxe pribatu arruntetan, arestian zehatutako kontusailetako kreditu gehigarriak hezkuntza premia bereziko ikasleen edo familia-, gizarte- nahiz kultura-egoera larriko ikasleen eskolatze-igoerei erantzuteko erabiliko dira, laguntza bereziei eta irakasleen nahiz langile ez irakasleen igoerari erantzuteko, hezkuntza premia konplexuagoko ikasleei erantzutearren matrikularen ehuneko 10 gordetzeko konpromisoa hartzen duten ikastetxetan.

2. Foru lege honetako 8. artikuluan ezarritako ari jarraikiz, Nafarroako irakaskuntza pribatuarekiko diru-laguntza eta itun sistema berraztertu ondoren, 2003ko Nafarroako aurrekontu orokortako aurrekontu-aurreikuspenak berraztertu eta aldatuko dira, gure erkidegoko eskola mapa planifikatzeko beharrei erantzuteko beharrezkoak diren ikastetxe pribatuak mantentzeko funts publikoak egokitzearen.

Zioak: Artikulua IUN/NEBk lege proiektu hau dela-eta defendatzen duen planteamendu orokorrari egokitzea, hain zuzen ere legearen zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketa azaltzen dugun horixe. Kreditu gehigarria birbanatu nahi da, hezkuntza premia handienak dituzten ikasleak eskolatzeko konpromisoa hartzen dutenei laguntzeko, egun oso ikastetxe pribatu gutxi erantzuten baitio arazo horri, eta ekidin egin nahi da ikasle etorkinak, gutxiengo etnikoetakoak eta ezgaitasuna dela-eta hezkuntza premia bereziak dituztenak sare publikoan metatzea. Gure ustez,

ikastetxe pribatuarekiko itun eta diru-laguntzak behar bezala justifikatu behar dituzte Nafarroako eskola maparen planifikazio argi eta erreal baten araberrako hezkuntza premiek.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

24. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko zuzenketa.

11. artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Ez gatz bat udaletxeetako pertsonalaren transferentziarekin. Oso interesgarria iruditzen zaigu udal titularitateko ikastetxe publikoen esperientzia. Izan ere, esperientzia hauetan publikotasuna ez ezik, hurbiltasuna bermatu egiten da (udaletxea baita titularra, eta ez administrazio autonomikoa). Gainera, irakaslearen egonkortasuna handiagoa da. Eta azkenik, azkeneko urteetan emaitza oso onak izan dituen eredu bat da.

Antza denez, Nafarroako Gobernuari ez zaio atsegin inolako ezberdintasunik ez eta esperientzia alternatiborik. Ikastetxe guzti-guztiak Nafarroako Gobernuaren esku egon behar dira, eta kitto.

25. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1 artikuluan bigarren letrada erantsi da.

Kidetze hori lanpostu guztiak (hutsik egon ala ez) mantenduz eta langileen antzintasuna errespetatuz –izan litezkeen lekualdatze lehiaketei begira– eginen da.

Zioak: Bi auzi horiek argi ezarrita uztea.

**12. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

26. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. idatz-zatia aldatzea

“1. Maisutza diplomako edo irakaslanerako egokitze-ikastaroko ikasleen praktiken tutoretza egiten dituzten lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleek 100 euro jasoko dituzte ikasle eta ikasurteko. Gainera, unibertsitateko agintaritzak eta Nafarroako Gobernuak jarduera horren gaineko ziurtagiria emanen dute, eta irakaskuntzako merezimendutzat joko da, 50 orduko prestakuntza ikastaro baten baliokide hain zuzen ere.

Zioak: Irakasleen beharriaz hobeki egokitzeko zaien erregulazioa omen.

27. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikulua aldatzeko zuzenketa

Idatz-zati bat gehitzea

4 bis artikulua. Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko laugarren xedapen iragankorrean xedatuaren babesean derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan ari diren maisuen kidegoko funtzionarioei Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko ordainsariak esleituko zaizkie horretan aritzen diren bitartean.

Zioak: Justifikatuta dago lan bera egiten dutenek ordainsari bera izatea.

**13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

28. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa.

13. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Artikulua IUN/NEBk lege proiektu hau dela-eta defendatzen duen planteamendu orokorrari egokitzea, hain zuzen ere legearen zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketa azaltzen dugun horri, eta 8. artikulua berriari. Ikastetxe pribatu itunduetako irakasleen eta langile ez irakasleen baldintzetako analogia hori hezkuntza sistemaren berrazterketa orokor baten esparruan eta hitzarmenak eta diru-laguntza Nafarroak dituen hezkuntza premia errealei egokitzeko esparruan egin dadila nahi da.

Ikastetxe pribatu guzti-guztien hitzarmen sistema berraztertu behar da. Helburua ez da ikastetxe pribatuak finantzatzea, baizik eta beharrezkoak diren eskola-plazak finantzatzea, konpromiso garden eta exijitzeko moduko bidez. Analogia prozesu bat abiatzea funts publikoen bidez mantentzen ari garen bi sareen tratamendu ezberdinean sakontzea da, pribaturako baliabide publikoak areagotzea sakontzea, eta are gehiago sakontzea irakaskuntza publikoaren finantzazio eskasean —irakaskuntza publikoak hezkuntza premia gehien dituzten ikasleen eskolatzearen % 80ri erantzuten dio gaur egun hiri eremuetan, eta etorkin afrikarren eta gutxiengo etnikoetakoen % 90i—. Ezin dugu areagotu sare publikoa, landa eremuetan izan ezik, pribatuaren subsidiarioa delako sententzia.

29. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA**

13. artikulua 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Gobernuak etorkizuneko ekitaldietara luzatzen diren gastu-konpromisoak hartu ahal izanen ditu, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Legeak baimentzen duena baino gehiago, “Irakaskuntza itunduaren sektorean hezkuntzaren kalitatea eta lan baldintzak hobetzen joateko akordioa” bete ahal izateko.

Zioak: Nafarroako Gobernuak eta irakaskuntza pribatuaren sektoreko sindikatu, titular eta patronalak —ANEG, CECE, NIE, SEPNA eta USO— 2000ko abenduan sinatutako akordioa betetzen laguntzea.

30. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluko 1 eta 2. idatz-zatiak aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“13. artikulua. Irakaskuntza itunduko irakasleen artean lan orduak berdintzeko analogia prozesu bat, astean bi ordu kendu arte, hastea.

1. Irakaskuntza pribatu itunduko sektorearekin negoziazioak hasiko ditu Nafarroako Gobernuak, lanaldi osoko irakasleen kasuan irakaslan jaisteko, astean bi ordu arte. Irakaslanean alde handien dagoen hezkuntza mailetan hasiko da prozesu hori.

2. Ordu-analogia finantzatzeko, Nafarroako Gobernuak 317.416 euro konprometituko ditu 2002ko azken hiruhilekoan.”

Zioak: Lege proiektuaren idazketa zein den ikusita, artikulua ez du ezer ere esaten, baina edozertarako bidea ematen du, eta hortaz, neurritz gainera gerta daiteke. Ez dakigu ez zein den 2002-2003 ikasturterakoustez aplikatuko den proposamen zehatza Gai honetan UPNk eta CDNk gai honetan erakutsi duten aurreikuspen falta gehiegizkoa iruditzen zaigu, eta ez da zurriz hurrengo urterako 3.178.416 euroko gastua baimentzen dela baino esaten ez duten 5 idatz-zati-rekin.

31. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatia aldatzen da, eta bigarren lerrokadan, “2007/2008 ikasturterainoko epe bat hartzen du, bi ikasturteok ere barne direla” jartzen duen tokian hauxe jarriko du:

“2005/2206 ikasturterainoko epe bat hartzen du, bi ikasturteok ere barne direla.”

Zioak: Epe luzeegia da, bai eta munta handiko eskaera ere irakasleek egindakoa.

32. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa

Lehenengoaren ondotik beste idatz-zati bat eranstea.

“1 bis artikulua. Ikastetxe itunduek ezin izanen dute inola ere eman egunean, astean edo urtean legeek eta haiek garatzeko dekretuek irakaskuntza arauturako ezarritako eskola orduak baino gehiago. Berariaz debekatzen da eskola orduen barruan sartzeko curriculum ofizial edo derrigorrezkotik kanpoko eskola nahiz inolako jarduerarik, baldin eta horrek zenbait arlo edo ikasgaitako ordutegia handitzea edo gutxitzea badakar.

Nafarroako Gobernuak aurreko araua errespetatzen ez duten ikastetxeekiko hitzarmena salatuko du.”

Zioak: Irakaskuntza itunduko eta publikoko irakasleen arteko benetako ordu-analogia lortu nahi bada, ikastetxe itunduek ezinbestez egokitu behar dituzte eskola orduak legez ezarritakoetara.

Bestela, homologatu beharrean, sare publikoaren aurkako diskriminazioa finantzatzeko dugu denon diruarekin.

33. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa

13. artikuluko 5. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Kendu nahi dugun idatz-zatia oso dotore gelditu da, baina ez du ezer esaten eta ez du inolaz ere konprometitzen. Hoberena, konpromiso politikoaren benetako erakusle, hauxe da: “Nafarroako Gobernuak aztertu egingen du, aurrekontuan erabilgai dagoen diruaren arabera...”. Espero dezagun Nafarroako Gobernuak ez egotea lege honi begira irakaskuntza itunduko sektorearekin akordioak bilatzeko.

**XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

34. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.
Hona testua:

“Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari 2003ko aurrekontu orokorretako aurrekontu-aurreikuspenak berrazter ditzan, herritarren eskolatze beharriari erantzuteko plangintza islatzearen eta arian-arian handi dezan Nafarroako hezkuntza publikoaren kalitatea hobetzeko inbertsio publikoaren ehunekoa, hurrengo hiru urteetan Nafarroako BPGren % 6ko inbertsio publikoa lortzeko gutxienez ere.”

Zioak: Artikulua IUN/NEBk lege proiektu hau dela-eta defendatzen duen planteamendu orokorrari egokitzea, hain zuzen ere legearen zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketan azaltzen dugun horri. Gizarte inbertsioa areagotu nahi da, hezkuntzan inbertitzen diren baliabideak BPGren arabera igoz, Nafarroaren errealitate sozioekonomikoaren antzeko gure inguruko beste herri batzuetako kuotak lortzearen. Eraitza ekonomikoak birbanatzeko modu bat da, gure herritarren gizarte- eta kultura-mailan sakontzeko.

35. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa.
Hona testua:

“2001/2002 ikasturtean –baimenik gabe bada ere– jardunean ziren eremu ez euskalduneko ikastolak, euren egoera legeria indardunera egokitzen den bitartean, 2000ko ekitaldiko aurrekontuetako zazpigarren xedapen gehigarriari ezarritako araubide berezi eta aldi baterakoari jarraikiz finantzatzeko dira 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, hezkuntza maila ezberdinetarako indarrean diren moduluak gaurkotuta.”

Zioak: Ikastetxe jakin batzuen errealitateari erantzutea, 1992ko Nafarroako aurrekontuetatik hona egin ohi den legez.

**II. ERANSKINARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

36. ZUZENKETA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

II. eranskina aldatzeko zuzenketa

Zioak: Transkripzioa egiterakoan akatsak egin dira, nahiz eta horrek ez eragin ez artikuluei ez zenbatekoek guztira egiten dutenari ere.

II. ERANSKINA

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAKORRAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA							
HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA	1,12		31.717,12	75,48	3.960,02	9,42	6.340,96	15,09	42.018,10
LEHEN HEZKUNTZA	1,28		36.248,14	74,57	5.619,81	11,56	6.740,57	13,87	48.608,52
D.B.H., LEHEN ZIKLOA	1,52		44.019,43	75,85	5.969,07	10,29	8.048,38	13,87	58.036,88
D.B.H., BIGARREN ZIKLOA	1,59		52.411,97	77,49	6.155,25	9,10	9.073,03	13,41	67.640,25
D.B.H., CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEA	0,68	0,6	39.990,70	74,02	4.961,64	9,19	9.073,03	16,79	54.025,47
D.B.H., CURRICULUM EGOKITUKO UNITATEA	0,88	0,6	46.583,40	76,10	5.565,95	9,09	9.073,03	14,82	61.222,38
BATXILLERGOA	1,52		50.104,52	75,84	6.890,18	10,43	9.073,03	13,73	66.067,73
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA	1,44		47.467,44	75,56	6.277,33	9,99	9.073,03	14,44	62.817,80

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	LANGILE OSAG.	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA									
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA. PSIKIKOAK	1		28.318,86	45,34	3.092,88	4,95	6.740,57	10,78	24.319,23	38,93	62.471,54
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA. AUTISTAK	1		28.318,86	49,31	3.092,88	5,38	6.740,57	11,72	19.292,07	33,59	57.444,38
LANBIDE HEZIKETA BEREZIKO HASTAPEN PROGRAMAK	1	1	57.062,90	52,95	6.170,41	5,73	9.073,03	8,41	35.479,41	32,92	107.785,75
BIZITZA HELDURAKO PRESTATZEKO PROGRAMAK	0,64	0,36	28.471,92	49,30	3.255,29	5,64	6.740,57	11,66	19.292,07	33,41	57.759,85

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA	1.	0,52	0,92	44.090,16	70,77	5.406,85	8,68	12.814,53	20,57	62.311,54
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
2) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA zatikako eskaintza hiru kurtsotan antolatuta	1.	0,36	0,32	21.240,48	67,27	2.673,49	8,47	7.666,44	24,28	31.580,41
	2.	0,36	0,24	18.897,07	71,4	2.424,41	9,16	5.148,10	19,45	26.469,58
	3.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
3) E.H.Z., ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK	1.	0,4	1,2	48.336,45	73,4	5.791,50	8,79	11.732,15	17,82	65.860,10
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
4) E.H.Z. SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA	1.	0,48	1,24	52.145,23	66,4	6.240,85	7,95	20.160,29	25,67	78.546,37
	2.	0,84	0,56	44.093,16	63,14	5.585,08	8	20.160,29	28,87	69.838,53
5) E.H.Z., ARTE GRAFIKO- ETAKO AURREINPRIMAK.	1.	0,4	1,12	45.993,03	66,81	5.542,41	8,05	17.317,25	25,15	68.852,69
	2.	0,68	0,68	42.334,11	65,18	5.309,15	8,17	17.317,25	26,66	64.960,51
6) E.H.Z., ARTE GRAFIKO- ETAKO INPRIMAK.	1.	0,56	0,96	46.580,40	65	6.514,00	9,09	18.580,00	25,93	71.674,40
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
7) E.H.Z., AROTZ-LANAK ETA ALTZARIAK NEURRIRA EGIN ETA INSTALATZEA	1.	0,76	0,92	52.001,39	68,65	6.381,21	8,42	17.377,37	22,94	75.759,97
	2.	0,52	0,92	44.090,16	65,94	5.406,85	8,09	17.377,37	25,99	66.874,38
8) E.H.Z., FARMAZIA	1.	0,36	1,08	43.502,81	72,14	5.255,47	8,72	11.515,76	19,16	60.310,04
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
9) E.H.Z., EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTRONIKOAK	1.	0,64	0,96	49.217,48	67,68	6.018,59	8,28	17.497,63	24,06	72.733,70
	2.	0,6	0,76	42.040,44	64,91	5.233,46	8,08	17.497,63	27,02	64.771,53
10) E.H.Z., MEKANIZAZIOA	1.	0,56	1,2	53.610,62	69,06	6.441,07	8,3	17.585,83	22,65	77.637,52
	2.	0,6	0,8	43.212,14	65,33	5.357,78	8,1	17.585,83	26,59	66.155,75
11) E.H.Z., MERKATARITZA	1.	0,96	0,64	50.392,18	73,36	6.321,35	9,2	11.984,70	17,45	68.698,23
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) G.H.Z., NAZIOARTEKO MERKATARITZA	1.	1,08	0,32	44.974,20	72,79	5.812,16	9,41	11.010,57	17,82	61.796,93
	2.	1,04	0,2	40.140,55	71,15	5.276,13	9,35	11.010,57	19,52	56.427,25
2) G.H.Z., PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA	1.	1,32	0,24	50.542,02	69,7	6.537,43	9,02	15.441,11	21,29	72.520,56
	2.	0,68	0,72	43.505,81	67,58	5.433,70	8,44	15.441,11	23,99	64.380,62
3) G.H.Z., ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK	1.	0,8	0,48	40.431,22	70,64	5.173,61	9,04	11.641,96	20,34	57.246,79
	2.	1,16	0,12	41.752,86	70,89	5.514,22	9,36	11.641,96	19,77	58.909,04
4) G.H.Z., OSASUN DOKUMENTAZIOA	1.	0,96	0,48	45.705,37	70,57	5.823,17	8,99	13.247,48	20,45	64.776,02
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
5) G.H.Z., HAUR HEZKUNTZA	1.	0,64	0,88	46.874,08	73,61	5.769,51	9,06	11.046,64	17,35	63.690,23
	2.	1	0	32.963,50	67,98	4.491,02	9,26	11.046,64	22,78	48.501,16
6) G.H.Z., MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA	1.	0,96	0,64	50.392,18	73,83	6.321,35	9,26	11.551,76	16,92	68.265,29
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
7) G.H.Z., INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA	1.	1,2	0,52	54.788,31	74,23	6.922,06	9,38	12.110,99	16,41	73.821,36
	2.	0,96	0,44	44.533,68	71,44	5.698,61	9,14	12.110,99	19,43	62.343,28
8) G.H.Z., ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMAK	1.	0,96	0,8	55.078,99	72,82	6.819,53	9,02	13.745,38	18,17	75.643,90
	2.	1,08	0,32	44.974,19	69,7	5.812,16	9,01	13.745,38	21,3	64.531,73
9) G.H.Z., MEKANIZAZKO BIDEZKO PRODUKZIOA	1.	0,6	1	49.070,63	69,38	5.980,73	8,46	15.681,62	22,17	70.732,98
	2.	1,2	0,2	45.414,70	67,77	5.925,69	8,84	15.681,62	23,4	67.022,01
10) G.H.Z., GARRAIOAREN KUDEAKETA	1.	0,72	0,64	42.480,95	72,21	5.346,99	9,09	11.010,57	18,72	58.838,51
	2.	1,24	0	40.874,74	71,28	5.465,37	9,53	11.010,57	19,2	57.350,68
11) G.H.Z., INFORMATIKA APLIKAZIOEN GARAPENA	1.	1,16	0,48	52.298,08	74,02	6.635,13	9,39	11.732,15	16,6	70.665,36
	2.	0,96	0,36	42.190,28	71,07	5.449,52	9,18	11.732,15	19,76	59.371,95
12) G.H.Z., ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITOLOGIA	1.	0,88	0,68	48.926,81	71,85	6.121,12	8,99	13.059,88	19,18	68.107,81
	2.	1,08	0	35.600,58	66,58	4.815,78	9,01	13.059,88	24,43	53.476,24
13) G.H.Z., ARTE GRAFIKOETAKO PRODUKZIOA	1.	0,36	1,24	48.189,61	67,7	5.753,66	8,08	17.245,08	24,23	71.188,35
	2.	0,96	0,44	44.533,68	66,01	5.698,61	8,45	17.245,08	25,56	67.477,37
14) G.H.Z., PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA	1.	0,76	0,8	48.486,29	69,53	6.007,58	8,61	15.248,68	21,87	69.742,55
	2.	1,4	0	46.148,90	68,36	6.114,93	9,06	15.248,68	22,59	67.512,51

37. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

II. titulua aldatzeko zuzenketa.

Tituluan "ituna betetzeko" kentzea.

Zioak: III. titulua IUN/NEBk lege proiektu hau dela-eta defendatzen duen planteamendu orokorrari egokitzea, hain zuzen ere legearen zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketan azaltzen dugun horrixek.

38. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

III. titulua aldatzea. Hona berria:

Diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeak sostengatzeko neurriak.

Zioak: III. titulua IUN/NEBk lege proiektu hau dela-eta defendatzen duen planteamendu orokorrari egokitzea, hain zuzen ere legearen zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketan azaltzen dugun horrixek.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****39. ZUZENKETA****FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 3 eta 4. idatz-zatiak aldatzeko zuzenketa

Hona testu berria: Hezkuntza arloko erronka berriei aurre egin behar izate etengabeak administrazioa behartzen du hezkuntza sistema aldiro

berraztertu, analizatu eta baloratzera, sistemaren eragingarritasunari eutsi eta hobetzeko.

Zioak: Testua hobetzen du.

40. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Zioen azalpeneko bosgarren eta seigarren lerrokadak kentzeko zuzenketa.

Zioak: IUN/NEBren ustez, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriak eta horien finantzazioa ez daude benetan justifikatuta. Berraztertzeko esparrua ez da Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren ebaluazio orokor baten ondorio, hobetu beharreko auzi eta alderdien emaitzak ematen dituen, eta ez da egin hezkuntza kalitatearen definizioa zehazteko irizpide praktikoen definiziorik. Nafarroan ez dira aztertu ondoko gaiak: izan diren hezkuntza erreformen aplikazioaren emaitzak, eskola-kontzentrazioak, derrigorrezko eskolatzeko gora egitea...

Gobernuaren proiektua irakaskuntza pribatuko sindikatu eta patronalarekiko itun eta akordioetan oinarritzen da bakar-bakarrik. Gobernuaren eta gizarte eragileen arteko negoziazio esparrua errespetatzen dugu, baina gure ustez, alde aurretik beharrezkoa da sakoneko arazoak, hala nola bi sare sostengatzeko beharra, Nafarroako eskola mapa erreala eta irakaskuntza pribatua –derrigorrezko nahiz derrigorrezkoak ez diren maila guztiak– % 100 finantzatzea.

Gure ustez, ez da ez serio ez zorrotz jokatzeko UPNko Gobernuak inoiz ez bezain azkar onetsi nahi izatea aurreko urteetan lortutako itun eta akordioak jasotzen dituen lege proiektu bat. Ganberak, herritarren interes orokorrak ordezkatzeko dituen erakundea den aldetik, ardua handiagorekin jokatu behar du, eta akordioak nahiz itunak besterik gabe eta presaka sinatzetik haratago joan behar du, Gobernuak azken unera arte tiraderan lotan izan dituen itun eta akordioei presako tramitazioa ematea nekez justifika baitaiteke.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Unibertsitateko ikasketak ezartzeko aukera ez mugatzea ikasketa horietara soilik.

2. ZUZENKETA

**BATASUNA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Lege proposamenaren artikulu bakarra, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeari xedapen gehigarri bat eransten diona, aldatzea proposatzen da. Hona xedapen horren testua:

“3.a. Nafarroan, unibertsitate jarduna honako printzipio hauek zuzenduko dute:

1. Unibertsitatearen eginkizunak

Nafarroan, esparru publikoan, unibertsitate jarduna gauzatzeaz arduratzen den erakundea NUP da. Beraz, hezkuntza komunitateari eta Nafarroako gizarte osoari irekitako tresna gisa eratzen da.

NUPi dagokio, irakaskuntza eta ikerkuntza lanak betetzeaz gain, eztabaida eta gizartearen partaidetza sustatzea.

2. Unibertsitatean sartzea.

NUPen unibertsitateko ikasketak egin nahi duten ikasle nafar guztiek bermaturik dute bertan sartzeko aukera. Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak ezarriko ditu, ikasleen baldintza sozial edo ekonomikoak horretarako traba izan ez daitezen.

Era berean, euskararen geografia, hizkuntza eta kultura esparruko ikasleei ere sartzeko aukera emanen zaie.

3. Ikasketen eskaintza.

NUPen bokazioa, sortzez, Nafarroak unibertsitatearen esparruan dituen hezkuntza eskaerei erantzuna ematea da. Horretarako, ikasketen eskaintza zabala garatuko da, egun dagoen edo etorkizunean izanen den unibertsitate pribatuaren eskaintzak garapen hori baldintzatu gabe.

Titulazioak Iruñean eta Tuteran, gutxienez, eskainiko dira, eta Nafarroako beste zenbait herritan ere eskaini ahalko dira unean uneko eta tokian tokiko premien eta aukeren arabera.

Ikasketen eskaintza euskararen geografia, hizkuntza eta kultura esparruko beste unibertsitate publikoekin koordinatuko da.

Sei hilabeteko epean, unibertsitatearen arloan entzutea ezaguna duten pertsona batzuek osaturiko batzorde batek plan bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, Nafarroan unibertsitate publikoaren eskaintzaren garapen estrategikorako. Batzorde-

ak 12kide izanen ditu, horietako 6 Nafarroako Parlamentuak proposatuak eta beste 6ak Nafarroako Unibertsitate Publikoak proposaturik.

4. Ikasleak.

Nafarroan unibertsitateko ikasketak egiten ari diren ikasle guztiek eskubide hauek dituzte:

Euskaraz ikasi eta komunikatzeko eskubidea.

Unibertsitatean sartu eta bertan gelditzeko eskubidea aukera berdintasunaren printzipioan oinarriturik.

Adierazpen, bilkura eta elkartzeko askatasunerako eskubidea.

Unibertsitatearen kudeaketan eta zuzendaritzan parte hartzeko eskubidea.

5. Irakasleak.

Nafarroak berezkoak dituen hizkuntza, kultur eta gizarte premiak asetze aldera, bidea zabalik uzten da unibertsitateko bertako lan kontratudun irakaslearen figura sortzeko, lan eskubide guztiekin irakaskuntzan eta ikerkuntzan. Figura hori beharrezkoa duen egonkortasunez hornituko da.

6. Euskara.

Unibertsitateko ikasketak euskaraz egiteko eskubidea bermatuko da, bai estatuaren lurralde osoan ofizialtasuna eta balioa duten unibertsitateko tituluak eskuratzekoak bai berezko tituluak lortzekoak.

Era berean, unibertsitateko komunitateko kideek unibertsitatean beraien komunikazioak, kudeaketak eta lana euskaraz egiteko duten eskubidea ere bermatu egiten da.

Eskubide horiek ahalik eta eperik laburrenean bermatzeko helburuarekin, NUPek hizkuntza normalizaziorako planak prestatuko ditu, bost urtekoak, eta Nafarroako Parlamentuak horretarako behar diren diru baliabideak ezarriko ditu. Hizkuntza normalizaziorako plan horietan euskarazko eskaintza akademikoa gauzatzen duten bestelako unibertsitateekin edo unibertsitate enteekin lankidetzan aritzea aurreikusiko da.

7. Unibertsitatearen autonomia

Hemen adierazitako oinarriak garatzean unibertsitatearen autonomiaren printzipioa bermatuko da, Nafarroako Parlamentuari dagokion legegintzako jarduera orokorra alde batera utzi gabe.

Alde horretatik, ez da bidezkoa inolako injerentzia unibertsitatean.

Zioak: Batasuna Parlamentuko Taldearen iritzi beharrezkoa da aldaketak egitea NUP sortu

zuen 8/1987 Legean. Lege horrek NUPen sorrera xedatu baizik ez zuen egin, Nafarroako erakunde publikoek unibertsitatearen jarduera garatzeko baldintzak arautu gabe.

NUP erakunde publiko bat da, gure gizarteak unibertsitatearen esparruan dituen hezkuntza beharrei erantzutearen ardura duena. Horregatik, Nafarroako Parlamentuak, lege bidez, zenbait eskubide eta berme ziurtatu behar ditu unibertsitateko ikasketak egin nahi dituzten herritar nafar guztientzat. Gutxieneko eskubide eta berme horiek ez dute eraginik izanen unibertsitateak bere jarduna estatutuen bidez libreki arautzeko izan behar duen autonomian.

Une hauetan ez dago legez arauturik Nafarroan unibertsitate jarduera gauzatzeko gutxieneko baldintzen inguruan. Bere aldetik, Espainiako Kongresuak oinarritzko legeria berri du Unibertsitateen Legearen bidez; berrikuntza horrek are gehiago murrizten du autonomia erkidego bakoitzaren eta unibertsitate bakoitzaren ahalmena unibertsitatearen arloan politika autonomoa egiteko.

Testuinguru horretan beharrezkoa da Nafarroatik unibertsitatearen arloko legerian sakontzea, arlo horretan legeak emateko ahalmenari uko egin gabe, eta azkeneko hamabost urteotan sortzen joan diren premia berriak biltzeko. NUP Tuterara hedatzeak aldaketa horietan aintzat hartu beharreko alderdietako bat izan behar du, ez inola ere bakarra, ordea.

Gai horren inguruan, gure ustez Tuteran ezarri beharreko titulazioak lege proposamenaren bidez ezartzea garaia baino lehenago dator eta ez da zuzena metodologiaren ikuspuntutik. NUP sortzeko legean bertan ez ziren zehazten titulazioak, baizik eta ezarri beharreko eskolak eta fakultateak. Zergatik titulazio horiek eta ez beste batzuk? Gai hori ez da arinkeriatan ibiltzeko modukoa, Tuterako Udalak eskatutako txosten bat oinarri hartuta lege bidez titulazio batzuk ezartzeko.

Ildo horretan, egokiagoa iruditzen zaigu irizpide batzuk lege bidez ziurtatzea, Nafarroako Gobernua eta NUP konpromisora eramanen dituztenak ikasketen eskaintza egiteko orduan, eta batzorde baten esku uztea esparru publikotik egin behar den eskaintza akademikoaren garapen estrategikorako proposamena egin dezan, bertan aurreikusirik zein titulazio ezarri Iruñean, zein Tuteran eta zein Nafarroako beste herrietan.

3. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Artikulu bakarren testuaren ordezkari honako hau proposatzen da:

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri bat erantsi zaio Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeari. Hona xedapen horren testua:

“31.1. Unibertsitatea antolatzeke legearen eta Nafarroako Parlamentuak horretarako hartuko dituen erabakien esparruan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bertaratze ikasketak ofizialak ezarriko ditu Tuteran, lehentasunez unibertsitate eskolaren mailarekin, titulazioen eskaintza osatzeko eta Nafarroako gizartearen hezkuntza premiak asetzeko egokiak direnak.

Zioak: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bertaratze ikasketak ofizialak Tuteran ezartzea ahalbidetu eta errealitate bihurtzea.

4. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren 2. puntua aldatzeko zuzenketa

2. puntuaren testu haxe izanen da, 3. puntua gehiturik:

“2. Hiru urteko epean, arestian aipatutako eskoletako ikasketen titulazioak, gutxienez, hasiko dira irakasten.

3. Irakatsi beharreko ingeniartzak, titulazioak eta diplomaturak sei hilabeteko epean zehaztuko dira batzorde misto baten eskutik. Hauexek izanen dira batzorde horretako kideak:

Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Foru Gobernuak

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Erriberan bertaratze unibertsitatea ezartzearen aldeko fundazioa.

Zioak: Berrikuntzaren faktorea aintzat hartuta titulazioak zehazteko lana batzorde misto batek betetzeak zentzuzkoa dirudi, batzorde horretan

lege proposamen honen gaian interesa duten estamentu ezberdinen sentsibilitate eta ordezkari-tza egoki guztiak egon behar baitira.

5. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Unibertsitateak, sei hilabeteko epean, herritarren interesei erantzuten dieten unibertsitateko ikasketak proposatuko ditu Tuteran ezartzeko, eskaintzaren eta eskaeraren arteko oreka abiapuntutzat harturik.

Zioak: Nafarroako herritarren eskaerari erantzuteko egiaz beharrezkoak diren ikasketak ezarri behar dira.

6. ZUZENKETA**BATASUNA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lege proposamenaren izena aldatzeko zuzenketa. Haxe proposatzen da:

Foru Lege proposamena, Nafarroan unibertsitate publikoaren jarduna arautu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatzekoa

Zioak: Batasuna Parlamentuko Taldearen iriziz beharrezkoa da aldatetako egitea NUP sortu zuen 8/87 Legean. Lege horrek NUPen sorrera xedatu baizik ez zuen egin, Nafarroako erakunde publikoek unibertsitatearen jardura garatzeko baldintzak arautu gabe.

NUP erakunde publiko bat da, gure gizarteak unibertsitatearen esparruan dituen hezkuntza beharrei erantzutearen ardura duena. Horregatik, Nafarroako Parlamentuak, lege bidez, zenbait eskubide eta berme ziurtatu behar ditu unibertsitateko ikasketak egin nahi dituzten herritar nafar guztientzat. Gutxieneko eskubide eta berme horiek ez dute eraginik izanen unibertsitateak bere jarduna estatutuen bidez libreki zehazteko izan behar duen autonomian.

«100» Une hauetan ez dago lege arauturik Nafarroan unibertsitate jardura gauzatzeko gutxieneko baldintzen inguruan. Beste autonomia erkidego batzuek, euskal autonomia erkidegoak adibidez, arautu dute dagoeneko unibertsitatearen esparrua. «Bere aldetik, Espainiako Kongre-

suak oinarritzeko legeria berri du Unibertsitateen Legearen bidez; berrikuntza horrek are gehiago murrizten du autonomia erkidego bakoitzaren eta unibertsitate bakoitzaren ahalmena unibertsitatearen arloan politika autonomoa egiteko. Testuinguru horretan beharrezkoa da Nafarroatik unibertsitatearen arloko legerian sakontzea, arlo horretan legeak emateko ahalmenari uko egin gabe, eta azkeneko hamabost urteotan sortzen joan diren premia berriak biltzeko. NUP Tuterara hedatzeak aldaketa horietan aintzat hartu beharreko alderdietako bat izan behar du, ez inola ere bakarria, ordea.

Nafarroan unibertsitate publikoaren jarduera gidatu behar duten oinarri orokorrak biltzea da gure asmoa.

7. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Lege proposamenaren zioen adierazpenaren orde z hauxe proposatzen da:

8/1987 Foru Legeak Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen, "Foru Komunitatearen zerbitzuko tresna gisa". Lege horretan, helburua erdiesteko aldi baterako ziren zenbait neurri eta kudeaketa egin beharra ezarri zuen, baina ez ziren Nafarroako erakunde publikoek unibertsitate jarduerak gidatzeko oinarri hartu beharreko printzipioak arautu. Horri dagokionez, legeak Estatu oinarritzeko legetara jo beharra ezarri zuen. Garai hartako erreferentzia LRU legea zen eta hementik aurrera onetsi berri den LOU legea izan den da.

NUPek jardunean hamabost urte iragan ondoren, beharrezkoa da bete gabeko lan horri ekitea: Nafarroako unibertsitate-eremuan jardun publikoa gidatu behar duten irizpideak ezartzea Alde batek, Nafarroak bere nortasun eta behar berezkoak dituelako, eta unibertsitate publikoak haien zerbitzuan egon behar duelako. Eta, bestetik, hamabost urte hauetan beharizan eta errealitate berriak sortu eta haiei erantzun behar zaielako.

Beharrezkoa da, horri dagokionez, Nafarroan unibertsitate publikoaren arloko legeetan sakontzea, honakoak bezain garrantzitsuak diren alderdiak arautuz: unibertsitatean sartzea, euskaraz ikasteko eskubidea, eskaintza akademikoaren baldintza orokorrak edo ikasle eta irakasleei buruzko zenbait alderdi. Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokio, gure komunitatean unibertsitate-irakaskuntza publikoaren ardura duen erakundea baita, irakaskuntza hori lege honetan jasotako

printzipioetan oinarriturik garatzea, betiere bere autonomiaren baitatik.

Foru lege hau helburu horiek betetzeko onetsi da.

Zioak: Batasuna Parlamentuko Taldearen iritziz beharrezkoa da aldaketak egitea NUP sortu zuen 8/1987 Legean. Lege honek NUPen sorrera ezarri baizik ez du egiten, baina ez ditu Nafarroako erakunde publikoek unibertsitate-jarduera garatzeko bete beharreko oinarriak arautzen.

NUP erakunde publiko bat da, gure gizarteak unibertsitatearen esparruan dituen hezkuntza beharrei erantzutearen ardura duena. Horregatik, Nafarroako Parlamentuak, lege bidez, zenbait eskubide eta berme ziurtatu behar ditu unibertsitateko ikasketak egin nahi dituzten herritar nafar guztientzat. Gutxieneko eskubide eta berme horiek ez dute eraginik izan unibertsitateak bere jarduna estatutuen bidez libreki arautzeko izan behar duen autonomian.

Une hauetan, Nafarroan unibertsitate jarduera gauzatzeko gutxieneko baldintzei buruzko araurik jasotzen duen legerik ez dago. Beste autonomia erkidego batzuek, Euskal Autonomia Erkidegoak esate baterako, unibertsitate arloa araupetu dute. Bestalde, Espainiako Kongresuak oinarritzeko legeria berri du Unibertsitateen Legearen bidez; berrikuntza horrek are gehiago murrizten du autonomia erkidego bakoitzaren eta unibertsitate bakoitzaren ahalmena unibertsitatearen arloan politika autonomoa egiteko.

Egoera horrelakoa izanik, beharrezkoa da Nafarroatik unibertsitatearen arloko legerian sakontzea, arlo horretan legeak emateko ahalmenari uko egin gabe, eta azkeneko hamabost urteotan sortzen joan diren premia berriak biltzeko. NUP Tuterara hedatzeak aldaketa horietan aintzat hartu beharreko alderdietako bat izan behar du, ez inola ere bakarria, ordea.

8. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Hirugarren lerrokadaren ondoren, "titulazioeta-ko batzuk –eta hartara aukera profesional zabala eskaintzen dutenak– bertan jarrita" hitzen ondotik, ondokoa gehitzea:

"NUP Erriberara zabaltzea Nafarroako gizarteak egituratzen laguntzen duen faktore bat da; izan

ere, Tuteran bertaratze ikasketa unibertsitarioak ezartzeari buruz Tuterako Udalak eginiko azterlanen jasotzen denez, unibertsitate-populazioari dagokionez Erriberaren eta Nafarroako gainerako lurraldeen arteko aldeak nabarmen hazi dira azken bi hamarkadetan, Erriberaren kaltetan.

Azken hiru urte hauetan (azterlan hori egin aurrekoetan), Erriberatik urteko bostehun ikasle baino gehiagok irten behar izan dute goi mailak o ikasketak egin ahal izateko. Horietatik ia guztiak Erriberatik hurbil dauden unibertsitate-ikastetxeetara joaten dira, Iruñera (%56) edo inguruko probintzietara —Errioxa eta Zaragoza— (% 25).

Hezkuntza garapenerako faktore estrategiko nagusietako bat da eta, halere, Erriberaren ahuldade handiena bertako populazioaren batez besteko prestakuntza maila baxua da.

Hala eta guztiz ere, Erriberan unibertsitate-ikasketak ezartzeak ez du izan behar eginkizun nagusi gisa Erriberako gazteak ikastera kanpora atera daitezen saihestea, eta ezin da, bestalde, mugatu bertako ekonomiak behar dituen teknikiari prestatzeko helburura; izan ere, justifikazio nagusia da saiatzea Erribera ere jakintza eta berrikuntza, gazte dinamizazio sozial positiboa eta Nafarroaren lurralde egituraketarako ardatzak produzitzen dituen eremu bilakatzea.

Zioak: Lege proposamenean aipaturiko faktoreei beste batzuk gehitu behar zaizkie, hain zuzen ere Nafarroako Erriberan bertaratze ikasketa unibertsitarioaren aldeko aldarrikapenetan hasieratik

beratatik egon direnak, laurogeiko hamarkadan mobilizazioak hasi zirenetik, eta gurasoen elkartek, unibertsitatearen aldeko fundazioak eta Tuterako Udalarentzako azterlana egin zuen lantaldeak jaso dituztenak.

9. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 3 eta 6. idatz-zatiak ordeztuko zuzenketa. Hona testuak:

3. idatz-zatia.

“... Hori dela eta, egun irakasten ari den eskaintza finkaturik, aurrera egin beharra dago eta, lurraldeari eta eskaintako espezialitateei ere erreparatuta, herritarrek eskatzen dituzten batzuk sartzen joan behar da.”

6. idatz-zatia.

“...Xede horretarako, hurrengo hiru urteetan unibertsitate-ikasketak ezarriko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikastetxe propioen bitartez eta haietan erantzuna emanen zaie Nafarroako unibertsitate-ikasleen beharrei eta aukera profesionalei.

Zioak: Testua foru legearen xedeei egokitzea, hain zuzen ere Nafarroako unibertsitate ikasleen benetako beharrian eta eskariei erantzuna eman beharri.

Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamenari buruz Gizarte Gaietako Batzordeak onetsitako ponentziaren txostenari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut.

Iruñean, 2002ko ekainaren 14n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. artikulua, "Helburua" aldatzea proposatzen da. Ondokoa gehituko da lerrokadaren amaieran: "Lege honen helburua da, orobat, erasotzaileak berrezi eta birgizarteratzeko tresnak ezartzea".

Zioak: Garrantzitsua da erasotzaileek pertsonen arteko berdintasun-baloreak onar dezaten lan egiten uzten duten neurriak hartzea eta haien jarreraren edozein nahasketa psikologiko edo/eta sozialen zergatuei kasu ematea.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

3. Nafarroako Gobernuak ekintza plan integralak igorriko ditu Parlamentura, indarkeria sexistaren aurka borrokatu eta biktimei ematen zaien arreta hobetzeko.

Zioak: Nafarroako Gobernuak Parlamentura planak igortzen baditu eztabaidatu eta onesteko dela ulertzen da, eta hortaz, gure ustez ez da beharrezkoa hori lege batean berariaz jasotzea.

Bestalde, egoerak aginduko du planak urte anitzekoak edo urte batekoak izan diren.

3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

Plan horiek orobat jasoko dituzte erasotzaileak berregokitzeko aurrera eramandako jarduketak.

Zioak: Kontu hau gehitzea, legearen helburuan proposatutako aldaketarekin bat etorritz.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

4. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa

5. artikulua. Hedabideak.

Hedabide publikoek indarkeriaz jardutea eragin dezakeen irudi edo eduki laidogarririk programazioan emanen ez dutela bermatuko du Foru Gobernuak.

Zioak: Generoko indarkeriako kasuak emititzeak antzeko egintzak egitea eragin dezake, eta hortaz, administrazioak ahal den neurrian ekidin behar du halakoak ematea.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

5. artikulua. Hezkuntza arloko neurriak, hala hezkuntza formaleko nola ez-formaleko arlokoak

Zioak: Hezkuntza arlo guztietara zabaltzea neurriak, hezkuntza formala nahiz ez-formala izan.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Enmienda de supresión.

5. artikuluko 2. idatz-zatian kendu egingen da urte bateko epea.

Zioak: Edukiak egokitzeko-eta urte beteko epea laburregia iruditzen zaigu.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Txosteneko testuan kendu egingen da "hezkuntza maila guztietan", eta horren ordez "derrigorrezko hezkuntza mailetan" jarriko da.

Zioak: Ez zaigu logikoa iruditzen hezkuntzako edukiak egokitu behar izatea derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzetan eta unibertsitate mailakoe-tan.

8. ZUZENKETA

BATASUNA
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 5. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

Nafarroako Gobernuak, hezkidetzaren ikuspegi batetik, eskola materialen berrikuspen sistematikoa eta erabilera kritikoa sustatuko du hezkuntza maila guztietan, eta erretiratu egingen ditu gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren printzipioa urratzen duten materialak.

Zioak: Onetsitako testutik ez da ondorioztatzen Gobernuak hezkidetzaren ikuspegi batetik sustatuko duela eskola materialen berrikuspen sistematikoa eta erabilera kritikoa.

9. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

5,3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5.3 artikulua aldatu eta ondoko lerrokada gehitzea proposatzen da:

Material horiek modu sistematikoan berrikusiko dira hezkuntza maila guztietan, pertsona helduen hezkuntza barne. Horretarako, inplikatu egingen dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Departamentua nahiz Nafarroako Emakumearen Institutua, eta administrazio publikoak beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu horretarako.

Zioak: Berrikuspen hori funtsezkoa da hezkuntza esparruan indarkeria sexistari aurrea hartzeko.

10. ZUZENKETA

BATASUNA
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 5. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

Nafarroako Gobernuak hezkuntza arloko profesionalak prestatzeko programak taxutuko ditu, batez ere gazteen hezkuntzan inplikaturik daudentzat (hezkuntza sistema, aisia, harrera zerbitzuak eta abar), hezkuntza erkidegoarekin –alegia, ikasleekin, irakasleekin eta familiekin– indarkeriari eta sexu-erasoei aurrea hartzeko jarduerak eta hezkidetzari buruzkoak egin ditzaten.

Zioak: Hezkuntzak garrantzi handia du aurrea hartzeari ekiteko, eta hortaz, arlo horretan lan egiten duten profesionalak prestatzea lehentasuneko zeregina da.

11. ZUZENKETA

BATASUNA
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 5. artikuluari idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Nafarroako Eskola Kontseiluak aldizka txosten bat eginen du eskola sisteman aukera berdintasunaren bilakaerari buruz, eta bere urteko txostentan hezkidetzaren ikuspegia jasoko du.

Zioak: Gure ustez, garrantzitsua da Nafarroako Eskola Kontseiluak hezkidetzaren arloan ikastetxeen egoera zein den jakiteko txostenak egitea.

12. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5 artikulua aldatu eta ondoko lerrokada gehitzea proposatzen da:

Hezkuntza Departamentuak Hezkidetzako Aholkularitza Berariazkoa berrezarriko du pedagogi berrikuntzako atalean eta irakasleentzako laguntza zentroetan (ILZ).

Zioak: Proposamen garrantzitsua da, hezkuntza arloko neurriek proposatutako helburuak lortzen lagun dezaten.

13. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5 artikulua aldatu eta ondoko lerrokada gehitzea proposatzen da:

Nafarroako Eskola Kontseiluak txosten bat eginen du aldizka eskola sisteman aukera berdintasunaren bilakaerari buruz, eta bere urteko txostenean generoaren eta hezkidetzaren ikuspegia jasoko ditu.

Zioak: Eskola erkidegoan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioa bultzatzea.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

14. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 6. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

Hezkuntza Departamentuak Hezkidetzako Aholkularitza Berariazkoa berrezarriko du pedagogi berrikuntzako atalean eta irakasleentzako laguntza zentroetan (ILZ), Hezkuntza Departamentuaren menpe.

Zioak: Ponentziak onetsitakoan ez da garbi gelditzen aipatu atalean eta Hezkuntzaren menpe ezarriko dela Hezkidetzako Aholkularitza Berariazkoa.

15. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Egoki iritzi gero, Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak foru lege honetan hezkuntza arlorako ezarritako neurrien garapenari buruzko informazioa jaso ahal izanen du Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko urteko txostenean, edo bestela, informazio berariazkoa eman ahalko du.

Zioak: Hezkuntza arloa funtsezkoa da generoko indarkeriari aurrea hartzeko, sentsibilizatzeko nahiz desagerrarazteko eta gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko, eta hortaz, ematen du beharrezkoa dela aukera ematea Nafarroako Eskola Kontseiluari txosten bat egin dezan foru lege honetan hezkuntza arlorako ezarritako neurrien garapenari buruz.

16. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 6. artikuluari idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Hezkuntza mailan, sexu erasoak faltatzat joko dira, eta halatan, hartu beharreko neurriak arautuko ditu ikastetxe bakoitzaren erregelamendu organikoak, eta hartan espresuki azalduko dira bizikidetasunari buruzko oinarritzko arauak –ondokoetan oinarrituta: pertsona guztienganako errespetua, giza harremanetatik indarkeria oro desagerraraztea eta, horrenbestez, sexu indarkeriazko jarreretikiko arbuio erabatekoa–, jarrera horiek zigortu edo zuzentzeko neurriak eta jarrera sexisten kritika esplizitua, gisa horretako jarrereri bidea ematen baitiete.

Zioak: Ikastetxe guztietan sexu erasoak faltatzat joko direla ezarri nahi da, eta halatan, ikastetxe bakoitzeko barne araudiak arautuko ditu.

17. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondokoa gehitzea proposatzen da:

Ikastetxeko barne araudian espresuki azalduko dira bizikidetasunari buruzko oinarritzko arauak –ondokoetan oinarrituta: pertsona guztienganako errespetua, giza harremanetatik indarkeria oro desagerraraztea eta, horrenbestez, sexu indarkeriazko jarreretikiko arbuio erabatekoa–, jarrera horiek zigortu edo zuzentzeko neurriak eta jarrera sexisten kritika esplizitua.

Zioak: Artikuluak hezkuntza arloko neurriak ezarri nahi ditu, hezkuntza proiektu eta planetako gidalerroak bereziki. Ikastetxeko barne araudia horien funtsezko parte bat da.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

18. ZUZENKETA

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 9. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

Egun diren emakumeari laguntzeko zentroen iraupenerako beharrezkoak diren giza eta gauza baliabideak bermatuko ditu Nafarroako Gobernuak. Jendearentzako ordutegiak bermatu egin behar du arratsaldetako asistentzia, eta zerbitzu

horiei gaian espezializatutako diziplina arteko ekipo esperentziadunak esleituko zaizkie.

Zioak: Herritarren beharrezko erantzun egoia emanen zaiela bermatu nahi da.

19. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

9.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. 9.2 artikulua aldatzea proposatzen da. Azken esaldiaren ordez ondokoa jarriko da: Orobat bermatuko da 8.000 biztanleko laguntzeko zentro bat izan dela. Emakumeari laguntzeko zentroek goiz eta arratsaldeko ordutegian artatuko dute jendea, eta diziplina arteko ekipoak eta aukera berdintasuneko teknikari bat –zentro horiek xede duten gaian espezializatuak– izanen dituzte.

Zioak: Aurrea hartzeko neurri eraginkorrak ezartzea.

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 9. artikuluko 3. idatz-zatiko azken lerroa II. kapitulura (sentsibilizazio neurriak) eramatea proposatzen da.

Zioak: Aurreneurrietan baino egokiagoa iruditzen zaigu sentsibilizazio neurrien artean jasotzea.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 11. artikulutik “polizial” hitza kenduko da, eta hartara, honela geldituko da: Zerbitzu horrek urrutiko kontrol pertsonaleko sistema bat izanen du, ,,,

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu ez agertzea zer erakundek egin behar duen tratu txarrak jasateko arriskua duten pertsonen kontrola. Polizia nahiz beste edozein izan daiteke.

**13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

22. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 13. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

Foru Komunitateko administrazioak indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkaten pertsonentzei laguntza psikologikoa emanen die, haiek berrezi eta gizartean berregokitzeko.

Laguntza hori doakoa izanen da errenta mailaren arabera.

Zioak: Administrazioak berak eman dezake zerbitzu hori, edo beste entitate batek, itun, hitzarmen edo administrazioak egoki iritzitako moduan.

23. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. Legearen testu osoan, "doakoa"ren ondoren "errenta mailaren arabera" jartzea proposatzen da.

Zioak: Laguntza ez da denentzako doakoa izan behar, baizik eta errenta mailaren arabera behar hori dutenentzako.

24. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

9. artikulua. Erasotzaileak berregokitzea.

Foru Gobernuak, gainontzeko administrazioekin elkarlanean, erasotzaileak berregokitzeko programetan doan parte hartzeko aukera emanen du, eta nahi dutenei laguntza psikologikoa eta tratamendu berezia eskainiko die, baldin eta alde zuzenetik erasoak aitoritzen bada eta erasoak nahiz mehatxua dela eta damutzen bada.

Zioak: Funtsezkoa da erasotzaileak gizartera berregokitu eta gizarterako berreskuratzea, eragiten duten indarkeria desagerrarazi nahi bada.

25. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA**

13. artikulua aldatzeko zuzenketa.

13. artikulua aldatzea eta lehen nahiz bigarren lerrokatetan "indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkaten pertsonentzako" ondokoa gehitzea proposatzen da: "eta, oro har, sexu erasotzaileentzat".

Zioak: Berreziketa eta gizartean berregokitzea ez dira soilik indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkatenentzako, baizik eta erasoak nahita egiten dituztenentzat eta gainerakoentzat ere.

**14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

26. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikulua kentzeko zuzenketa. Familia-bitartekotza.

Zioak: Uste dugu administrazioak gehiegizko tutoretza egiten duela.

27. ZUZENKETA

**BATASUNA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

III. kapituluaren –Aurreneurriak– artikulua bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Egoitza babestuak.

Nafarroako Gobernuak, lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, tratatu txarrak luzarotan jasan dituztelako narriadura psikiko nabarmenak izan eta nolabaiteko babesa behar duten emakumeentzako egoitza babestuak sortzeko irizpideak arautuko ditu. Betiere, gutxienez ere gisa horretako egoitza bat egonen dela bermatuko da.

Zioak: Gaur egun ez dagoen baina asko eskatzen den zerbitzu bat ezartzea da helburua.

28. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

III. kapituluan –Aurreneurriak– artikulua bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Ludo-hurtzaindegia.

1. Zentro publikoak ezarriko dira 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Zabalik egonen dira urte osoan, goizeko 8etatik arratsaldeko 20ak bitarte, eta baloratu eginen dira bestelako beharrian zehatzak.

2. Zerbitzu horren menpe, laguntza eta prebentzio lana eginen da nerabeekin eskola laguntzaren eta bestelako jardueren bitartez, auzoko edo herriko beste talde batzuekin elkarlanean.

3. Zaintzaileen sare bat sortuko da, emakumearen kargura dauden seme-alabak edo zaharrak gaixotuz gero laguntza etxean emanen dutenak.

Zioak: Egoera horretan bizi diren emakumeak laneratzeko ezinbesteko laguntza dakarren zerbitzua sortu nahi da.

**15 ETA 16. ARTIKULUEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

29. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

15. artikulua. Ludo-hurtzaindegi zerbitzua sortzea.

– 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzako ludo-hurtzaindegi zerbitzua sortuko da. Zabalik egonen dira urte osoan, goizeko 8etatik arratsaldeko 20ak bitarte, eta baloratu eginen dira bestelako beharrian zehatzak. Zerbitzu hori ezinbesteko euskarri izanen da opo garaian eta aisialdiak betetzen ez duen denboran.

– Zerbitzu horren menpe, laguntza eta prebentzio lana eginen da nerabeekin eskola laguntzaren eta bestelako jardueren bitartez, auzoko edo herriko beste talde batzuekin elkarlanean.

– Zaintzaileen sare bat sortuko da, emakumearen kargura dauden seme-alabak edo zaharrak gaixotuz gero laguntza etxean emanen dutenak.

30. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

16. artikulua. Aisia eta astialdia.

– Aisia eta astialdiko jarduerak programatuko dira, tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako terapia gisa, eta lokak aproposak izanen dituzte elkarrekin egon ahal izateko.

– Oporretako programak eta aisiako tokietara joan ahal izatekoak taxutuko dira banaketa eta indarkeria egoerak bizi izan dituzten eta dirusarrerarik gabeko edo gutxiegiako emakume eta seme-alabentzat.

Zioak: Laguntza zerbitzu egokiak bermatzea indarkeria sexistaren biktimei.

31. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA**

15. artikulua aldatzeko zuzenketa.

15.1 artikulua aldatzea proposatzen da. Ondokoa gehituko da bukaeran:

“genero ikuspegian behar bezala prestatutako pertsonen bidez eginen da.”

Zioak: Eraso sexualak jasaten dituzten pertsonen aholku eta laguntza juridikoa behar bezala prestatutako pertsonen esku utzi behar da.

32. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA**

15. artikulua aldatzeko zuzenketa.

15. artikulua aldatzea proposatzen da. Ondokoa gehituko da bukaeran:

Administrazio publikoak, justizia administrazioarekin sinatzen dituen lankidetzak hitzarmenetan, ondoren ematen diren jarraibideekin bat, tratu txarren biktimei babesa emateko Prozedura Kriminalen Legea aldatzen duen 1999ko ekainaren 9ko Legean eta Zigor Kodean jasotzen diren neurriak aplikatu eta betearaziko dizkio hari. Neurri horiek aitzakiarik gabe hartu behar ditu epaileak emaku-

meen nahiz adingabeen aurkako delituzko egintza baten berri duen unean berean. Hona jarraibideok:

- Erasotzailea berehala atxilotu eta epaitegira eramatea epailearen aurrean deklaratzeko:

- Familiako epaileari edo kasuan kasuko lehenbiziko instantziakoari jakinaraztea delituak, aldez aurretiko neurri behin-behinekoak har ditzan, familiaren bizilekua erabiltzeko eskubidea emakumearena eta seme-alabena izateko eta, beraz, erasotzailea etxe horretatik kanporatzeko eta familiako kargei aurre egiteko dirua ematera behartzeko

- Emakumearengana eta adingabeengana hurbiltzeko debekua, distantzia zehatz batera, bizilekura, lantokira, eta abarretara

- Armak atxikitzea berehala eta, beste nonbait edukiz gero, epaitegian edo polizia entregatzera behartzea

- Erasotzaileak lehendabiziko aldia ez badu, aurreneurritzko espexeratzea, epaiketa izan arte

Zioak: Laguntza juridikoa ematen duten administrazioen artean elkarrekin aritu eta elkarri laguntzeko lege-loturak sortzea.

33. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 16. artikuluko 6. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Abokauen elkargoen funtzionamenduan nabarmen esku-sartzea da.

34. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 15. artikuluari idatz-zati bat (7. idatz-zatia) gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Behar diren giza eta diru baliabideak jarriko dira, Justizia Ministerioarekin ezarri beharko diren akordio edo hitzarmenen esparruan, emakumeen eta adingabeen kontrako indarkeriarako fiskaltza bereziak modu eraginkorrean eta arinean bete dezan bere zeregina Behar diren giza eta diru baliabideak jarriko dira, Justizia Ministerioarekin ezarri beharko diren akordio edo hitzarmenen esparruan, emakumeen eta adingabeen kontrako indarkeriarako fiskaltza bereziak modu eraginko-

rean eta arinean bete dezan bere zeregina Era berean, akordio horietan aurreikusitako beharko da ministerio fiskalak epaiketetan akusazio gisa jarduteari ekin diezaion tratu txarrak edo/eta erasoak izan diren zantzuak dauden guztietan, falta epaiketetan barne, biktimak salaketa kendu badu ere

Zioak: Biktimei babesa emateko justizia egiten ahal den guztia egiten ari dela bermatzearen, ezinbestekoa da egoera horretan laguntza handiago eta hobea ematen lagun dezaketen tresnak gaitzea.

35. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 15. artikuluari idatz-zati bat (8. idatz-zatia) gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Kasuan kasuko instantziak premiatuko dira emakumeek eta adingabeek jasandako tratu txarreatatik irekitako prozedurei presako tramitazioa eman diezaieten epaitegiek, eta epaiketak azkarraz izateko behar diren giza eta gauza baliabideak erabiliko dira

Era berean, hasieratik bertatik gertaerak sakon aztertu eta mugatuko dira, delitua ala falta den eta salaketa gehiagorik izan den jakiteko, horrela bada epaitegi berean tramitatu ahal izateko.

Zioak: Prozedurak azkartzeko neurriak hartu behar dira ezinbestez, egoera jakin batzuk ekiditeko erabakirik egokienak hartu ahal daitezken.

36. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 15. artikuluari idatz-zati bat (9. idatz-zatia) gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Justizia Ministerioari eskatuko zaio abian jar ditzan emakumeen eta adingabeen kontrako tratu txarren eta/edo eraso kasuetan espezializaturiko epaitegi bakarra izateko behar diren neurriak.

Zioak: Neurri horrek prozedura juridikoak nabarmen hobetuko lituzkeela uste dugu.

37. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 15. artikuluari idatz-zati bat (10. idatz-zatia) gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, Prozedura Kriminaleko Legea aldatu zuen 1999ko ekainaren 9ko Legean eta Zigor Kodean tratu txarren biktimak babesteko ageri diren neurriak, behin-behinekoak nola behin betikoak, aplikatu eta garatuko direla sustatuko du, eta epaileek, emakumeen edo haurren kontrako delitu baten berri duten unean aitzakiarik gabe hartu beharko dute kaltetuei babes emateko neurria.

Zioak: Nafarroako Gobernuak inplikatzeko ahal da, eta inplikatu behar du, tratu txarren biktimak babesteari buruz legean jasotako neurriak aplikatu eta garatzerakoan.

**17. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

38. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa. 17. artikulua kentzea. Herri ekintza.

Zioak: Herri ekintza fiskaltzak darama, eta hortaz, gainontzeko administrazio publikoek ez dute eskua sartu beharez dagozkien eskumenetan .

39. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 17. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Halatan, kendu eginen da ondokoa: "berdintasunaren aldeko organismoen edo beren xedeen artean emakumearen eskubideen defentsa duten entitate eta elkarte bitartez".

Zioak: Herri ekintza administrazio publikoek eramatea planteatzen da.

**18. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

40. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 18. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

Zerbitzuaren helburua izanen da emakumea eta adingabeak, baleude, hartzea, berehala eta zuzenean, inongo baldintzarik eskatu gabe, laguntza emozionala eman eta beharrezkoa den kasuan, abegi egitea. Horrez gain, emakumea harremanetan jarriko du kasuan kasuko emakumei laguntzeko zentroarekin.

Horretarako, behar diren giza eta gauza baliabideak ezarri beharko ditu Nafarroako Gobernuak.

Zioak: Egun gertatzen dena ekiditea bilatzen da, baldintza batzuk betetzea eskatzen baita, baina ez da laguntza behar bezala ematen, batik bat baliabiderik ez dagoelako.

41. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI****MILAGROS RUBIO SALVATIERRA****ANDREAK AURKEZTUA**

18 artikulua aldatzea proposatzen da. Ondokoa gehituko da bigarren lerrokadaren bukaeran: "baina ez da eskatuko salaketa alde aurretik jar-tzea."

Zioak: Larrialdietako zerbitzuetan tratu txarrak jasaten dituzten emakumei laguntza ematerakoak mailak ez sortzea.

**19. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

42. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI****MILAGROS RUBIO SALVATIERRA****ANDREAK AURKEZTUA**

19. artikulua aldatzeko zuzenketa.

19. artikuluari idatz-zati bat gehitzea. Hona testua:

Abegi etxeek eta larrialdietako pisu edo zentroek bermatu egin beharko dute bertan hartutako emakume eta adingabeei beharrezkoa duten konpainia egiteko eta esku hartzeko izanen direla profesionalak 24 orduz.

Zioak: Hartutako pertsonen urrakortasuna kontuan hartuta, beharrezkoa da egun osoan profesionalak bertan izatea.

23. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

43. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 23. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

, baina horretarako izena eman beharko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren erregistroetan.

Zioak: Pertsona horiei ezinezkoa izanen litzateke prestakuntza programetan parte hartzen uztea baldin eta ez badaude Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda.

44. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

23. artikulua aldatzeko zuzenketa.

23 artikulua aldatzea proposatzen da. Ondokoa gehituko da 2. idatz-zatiaren bukaeran: , eta horretarako, diru-laguntzen programa bar jarriko da abian, prestakuntza programa horietako emakumeei gutxienezko diru-sarrera bermatuko diena.

Zioak: Prestakuntza programa baliagarri egitea, emakume horien autonomia ekonomikoa bermatuz.

25. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

45. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 25. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona aldaketa:

Oinarrizko gizarte zerbitzuek, emakumeei laguntzeko zentroek eta abegi etxe edo pisuek zuzenean kudeatuko dituzte...

Zioak: Emakumeek baliatzen dituzten zerbitzuak sartzea, burokrazia interesatuak ekidin eta laguntza horiek zuzenean kudeatu ahal izan ditzaitez.

46. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

25. artikulua aldatzeko zuzenketa. "Gizarte zerbitzuak" jarri partez ondokoa jarriko du: "Emakumeei laguntzeko zentroak, abegi etxeak eta larrialdietako zerbitzuak"

Zioak: Indarkeriaren biktimei laguntza zuzenean ematen dieten profesionalen kudeaketa zuzena erraztea.

AZKEN XEDAPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

47. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Azken xedapen bat gehituko da. Testu hau izanen du:

Nafarroako Gobernuak urtebeteko epea izanen du gehienez ere, foru lege hau argitaratzen denetik aitzina, bertan jasotzen diren neurriak garatzeko. Horretarako, foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren diru-aurreikuspenak egiten ditu urteko aurrekontu orokorretan Nafarroako Gobernuak.

Zioak: Luze jo duen foru lege hau abian jartzeko denbora luzez itxaron behar ez izatea eta lege-


ak praktikotasuna ez galtzea, diru-aurreikuspenak
garaiz egiten ez egiteagatik.

LEGEAREN TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

48. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Bukaeran ondo-
koa gehituko da: "...erregelamendu bidez ezartzen
denari jarraikiz."



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri
edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	